

Kultura

Han Elorrioko musika taldeak Tolosako Bonberenea gaztetxean aurkeztuko du lehenengo diskoa, bihar. > 14



Abenduaren 4tik 8ra Durango euskal kulturaren plaza bilakatuko duen 50. Azokaren kartela aurkeztu dute, Zumetarena. Argizaiola Saria Gerediaga Elkartearen eta Azokaren sortzaileei emango diotela ere aurreratu dute. > 11

Izan direlako DA!

Borrokalaria antifaxistak omenduko dituzte gaur, Agurrik gabeak ekitaldian

Durango 1936 kultur elkarteak "askatasunaren eta herriaren alde euren bizia eskaini zutenei" omenaldia egingo die gaur, 20:00etan, Kurutzia kaleko Gogoeta-gunean antolatatu duen ekitaldian. Errepresaliatuei lore-eskaintza egiteaz gainera, bertaratzen direnek hainbat testigantza ezagutzeko aukera izango dute hildakoen senitartekoen ahotik. > 3

"Abadiñoako proban izango ditudan sentsazioen arabera izango da gerokoa" > 15

Egoitz Murgoitio | Txirrindularia



Grupo  CATALANA OCCIDENTE

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

hitz #gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

 <p>HELDUENTZAT BAIONAK EZ DAKI Bea Salaberri (2015)</p>	 <p>UME ETA GAZTEENTZAT KORTSARIOEN OSTATUA Dani Fano & Guillermo Glez. (2015)</p>	 <p>MUSIKA EGUNKARI EZKUTUA Zura (2015)</p>
--	---	--

Durungaldea > 9

EH Bildu eta Herriaren Eskubidea elkarrekin Amankomunazgoan

Iurreta > 4

Herriko memoria bisuala sortzeko, argazki zaharrak bildu dituzte

Durango > 2

Gazteak ere etxeko gaixoak zaintzera animatu gura dituzte

Abadiño > 6

Gaztetxearen 17. urteurrena ospatuko dute asteburuan

Herririk herri

Gazteak ere etxeko gaixoak zaintzera animatu nahi dituzte

Zaindu programaren kanpaina berria aurkeztu dute

DURANGO Markel Onaindia Etxeko norbait gaixotu, eta uneoro besteen laguntza behar duenean, normalean familiako batek hartzen du bera zaintzeko ardura. Eta, esanguratsua da pertsona horien profila: zaintzaileen %87 emakumeak dira, eta gehienak, 60 urtetik gorakoak. Ardura hori bakarrik hartzen dutenek egoera estresagarriak bizi izaten dituzte sarri, eta hori saihesteko asmoz, zaintzaren lanak etxekoan artean banatzea eskatu dute Zaindu programako bultzatzaileek. Aurten, gazteei begira egingo dute, batez ere, inplikaziorako kanpaina; eurak ere etxeko gaixoak zaintzera animatu gura dituzte.

Amankomunazgoko eta Durangoko Udaleko adinekoen sailetik bultzatzen da Zaindu programa, Aldundiaren laguntzaz. Eguaztenean egindako aurkezpenean, zaintzaren ardura beste sektoreetara zabaltzeko zergatiaz berba egin zuen Esther Alonso teknikariak. Bere esanetan, egoera horiek "emotionalki gogorrak" izaten dira.

Gainera, denboran luzatzen direnean, zaintzaileek laguntzak behar izaten dituzte euren lanerako. Horretan laguntzen du Zaindu programak, zaintzaileei aholkuak eta ikastaroak ematen, besteak beste.

Ardura hori bakarrik hartzen dutenek egoera estresagarriak bizi izaten dituzte sarri

Ikuspegi baikorra

Kanpaina hainbat txirrindularik babestu dute, eta hori arrazoitzeko, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek txirrindularitzaren eta zaintzaren balioak parekatu ditu: "Eguneroko lana, sakrifizioa, talde-lana...". Lopezen esanetan, zaintza aurrera eramateko modu ugari daudela transmititu gura dute kanpainagaz.

Pilar Ríos Durangoko alkateordeak dioenez, zaintzaren



Zaindu programaren kanpaina bultzatu dutenak, aurkezpenean. Aurrean, Iturriaga eta Gorospe txirrindulari ohiak.

Horretan laguntzen du Zaindu programak, zaintzaileei aholkuak eta ikastaroak ematen


ikuspegi baikorra ere zabaldu gura dute. "Gaixoarekin egotea edo beragaz jolastea ere bada zaintzea".

Iturriaga eta Gorospe

Eneritz Iturriaga eta Julian Gorospe txirrindulari ohiak egon ziren aurkezpenean, eta gazteak programan parte hartzera animatu zituzten. Iturriagaren izekok esklerosia eduki zuen, eta

gaztaroan egoera hori zelan bizi izan zuen kontatu zuen: "Laguntzeko geunden. Baina, gaztea izanda, erantzukizuna apur bat urrun geratzen zaizu beti".

Gizartea gero eta zaharrago egiten dabil, eta zaintzaileen papera handitu egingo dela uste dute Zainduko bultzatzaileek. Hori uste du Gorospek ere: "Gazteak doazela mentalizatzen, gerora laguntza beharko da eta".



Alberto Santana, ETBko saioan. ETB

Santana, Gerediagaren berbaldi zikloan azkena

Gerediaga elkartera 50. urtemuga ospatzen dabil

DURANGO M.O.

Alberto Santana historialariak emango du Gerediagaren 50. urtemugaren harira antolatutako berbaldi zikloaren azken saioa. Datorren eguaztenean izango da, hilaren 28an, Durangoko Ar-

te eta Historia museoan. *Aitaren Etxea. Baserría Euskal Herriko historiaren oinarritzko iturria* izenburupean jardungo du Santanak.

UNED unibertsitateko irakaslea da Santana, eta, gaur

egun, telebistan ere agertzen da. Izan ere, ETBko *Baskoniako historia bat* programa aurkezten du.

Mapak eta argazkiak

Berbaldiez aparte, erakusketa bi antolatu ditu Gerediagak museoan. Alde batetik, Durangaldeko kartografia aztertzen duena dago, eta bestetik, eskualdeko 333 argazki zahar batzen dituen. Urria amaitu arte egongo dira ikusgai.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urriaren 16a,
13. urtea - 606. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugaldete Begoña.
Maketazalea:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:

"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Saillaburuetzak) diruz lagundua"



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Borrokalaria antifaxistak gogora ekarriko dituzte, Kurutziagan

Durango 1936 elkarteak Agurrik Gabeak ekitaldia antolatuko du gaur, 20:00etan



Iazko Agurrik Gabeak ekitaldiko irudia, Kurutziagan. David Maeztu.

Plateruenak 11. urteurrena ospatuko du, urriaren 29an

Plateruena kultur gune herritarra bere 11. urtebetetzera heldu da dagoeneko

DURANGO M.O.

Plateruena kultur gune herritarra bere 11. urtebetetzera ailegatu da dagoeneko, eta efe-

meride hori ospakizunerako aprobetxatuko dute *zilarginek*. Gainera, kultur guneak etapa berri bat hasi du azken urte biko

eraberritze prozesuaren ostean, eta zuzendaritza ere berria dauka. Horixe aurkezteko balioko du, besteak beste, urriaren 29an 19:30etik aurrera burutuko den ekitaldiak. Jan-edana egongo da, eta antzerki saio bat ere bai.

2014an zehar, dozenaka herritarrekin batera, kultur egitasmoa eraberritu zuen Plateruena. Lan-taldeka funtzionatzen hastea erabaki zuten, eta espazioa Durangaldeko elkarte eta sortzaileei doan uztea ere bai. Gainera, hasierako obragatik banketxeekin zeukan 250.000 euroko zorrari aurre egiteko, diru bilketa egin zuten; erdia herritarrei esker lortu zuten, eta beste erdia udalagaz adostuta.



Iaz, diru-bilketa kanpaina amaitu zenean ateratako argazkia. Txelu Angoitia.

DURANGO Jone Guenetxea Kurutziaga kaleko Gogoeta-gunean, Durango 1936 kultur elkarteak “askatasunaren eta herriaren alde euren bizia eskaini zigutenei” gorazarre egingo die. Elkarteko arduradunek azaldu dutenez, “bide-bazterretan, frontean zein gartzelan hildakoei, frontean jasotako zauriengatik hildakoei, fusilatuei zein desagerrazitakoei omenaldia egingo diegu ekitaldian, errepresaliatu guztiak ere gogoan hartuta”. Prentsa oharraren bitartez gaineratu dutenez, “Oro har, errepresioa jasandako durangar eta euskal herritar guztiei eginiko omenaldia izango da”.

Data berezia

Durango 1936 elkarteak data berezi bat gogora ekarri gura izan du. Izan ere, urriaren 24an, 78 urte beteko dira frankistek durangar bat fusilatu zutenetik Derioko hilerrian. Juan Eskubi Urtiaga zen, Durangoko defentsa-batzordeko kidea eta STV sindikatukoa.

Agurrik gabeak ekitaldiaren zortzigarren edizio honetan, errepresaliatuei lore-eskaintza egingo diete Kurutziagako Gogoeta-gunearen monolitoaren inguruan. Jarraian, herritarren hainbat testigantzei lekua egingo diete. Izan ere, bertaratzen direnek hainbat testigantza

Urriaren 24an, 78 urte beteko dira frankistek Juan Eskubi durangarra Derioko hilerrian fusilatu zutela

Bertaratzen direnek hainbat testigantza entzuteko aukera izango dute hildako senitartekoen ahotik

ezagutzeko aukera izango dute hildakoen senitartekoen ahotik. Gogoeta-gunean plaka jarrita amaituko dute ekitaldia.

Karkaba bati sarbidea egingo dio udalak

Gorbea tabernako komuna botako du udalak

DURANGO M.O.

EH Bildu koalizioak informatu duenez, Alde Zaharreko karkaba bati sarbidea egitea erabaki du udalak batzordean, eta lanak datozen asteetan hastea posible da. Hain zuzen ere, Goienkale, Artekale, Zeharkale eta Andra Mari kaleen artean dagoen karkaba izango da. Izan ere, Zeharkalen, gaur egun Gorbea tabernako komuna dago karkaban.

Bere sasoian, lokalaren jabeak karkabako lurra erosi zion udalari, komuna egin ahal izateko. Beraz, udalak lurra erosi beharko dio, eta ostean, komuna bota. Gero, ate bat ipiniko dute karkabara sartzeko. Hilabete iraungo du obrak, eta 35.000 euroko aurrekontua dauka. Ta-

bernan ere obra egin beharko dute komun berria ipintzeko.

Karkaben konponketa DAZ auzo elkarteko aldarrikapen nagusietakoa izan da, eta beraien ere egon ziren batzordean. Baina, beste eskaera batzuk ere egin zituzten: argia jartzea, karkaben erabilera kontrolatzea, garbiketarako egitea eta arratoiaren kontrako kanpainak garatzea.

Lokalaren jabeagaz akordioa ailegatu da udala, baina tabernaren gestioa alokatuta daukanak ez dakiela ezer esan dio ANBOTOri, eta prentsatik jakin duela. Bere negozioagaz zer gertatuko den galdetu, eta soluzio bat eskatu du: “Akordio batera heldu arte, ez dut ezer egiten utziko”.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura




Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!



Iurretaren memoria bisuala eratu guran, argazki zaharren bilduma

'Turreta zuri-beltzean 1895-1993' argazki zaharren bilduma aurkeztu dute



Txelu Anjoitia argazkilaria eta Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak aurkeztu dute argazki zaharrez osatutako bilduma.

IURRETA Aitziber Basauri Iurretako ondare fotografikoa eskura jarri guran, herriko 428 argazki zaharrez osatutako bilduma eratu du udalak Gerediaga elkartearen laguntzagaz. Argazkiak aro analogikokoak dira, zuri-beltzean gehienak: 1895ekoa da argazkirik zaharrena, eta berriena 1993koa. Nabarmentzekoak dira, batetik, bitxikeria lez, 1910ean eta 1919an Santa Apoloniako abiazio-ze-laietan ateratakoak; bestetik, Ebro baserriaren edo antzinako udaletxearen irudiak, duten balio dokumentalagaitik.

Udaletxean gordeko den *Iurreta zuri-beltzean 1895-1993*

bilduman, sei artxibotako erreferentziak jaso dira, eta kontsultarako iturrien gida osatu da. Totorikaguena alkateak azaldu duenez, kontsultarako fondo bat izan nahi du, "edonork ekarpenekin aberastu dezakeena". Horretarako, sei kopia egin dira. "Zabalik dagoen proiektua da" Txelu Anjoitia argakilaria berbetan: "2015ean hauxe dugu, baina 2020an gehiago egon daiteke. Inork argazkiren bat badu, Gerediagara jo dezake".

Iurretako Udalaren desanexioaren 25. urteurrenaren harira, Montoiko zubian antolatutako argazki zaharren erakusketa prestatzen sortu zen ekimenak

dagoena katalogatu eta eskura ipintzea du helburu, Iurretaren memoria bisuala eratzen joan eta oinarri bat sortzea ez eze. Montoian ipinitako argazki haiek herrian banatuta daude orain. Argazkia atera zen leku berean jartzen saiatu dira.

ERABILITAKO ARTXIBOAK:

Doliwak (Odi-Bakar sortu zuen) utzitakoa.

Ojangurenek XX. mende hasieran ateratako argazkiekin osatutako artxiboa.

Anjoitia Anaien (Foto Sol), 1952-2005 urte arteko argazkiak.

Pablo Garitonandiak, 1992-93an nekazaritza guneean ateratakoak.

Gerediagako artxiboa: G. Zorraquin eta J. M. Uriarteren argazkiak.

J. Agirre "Iketzak" etxerik etxe batutakoak.

Euskara sustatzeko plan berria landuko dute hilabeteotan

IURRETA A. B.

Euskara sustatzeko ekintza plan berria landuko dute datozen hilabeteetan Iurretan, eta, horretarako, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango dute. Aurten amaituko da 2012-2015 epealdirako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.

Euskararen egungo egoera aztertu ondoren, datozen urteetan "euskara sustatzeko helburuak" finkatuko dituzte, ekintza egoki eta eraginkorrak abiatzeko. Udalak iurretarrak "euskara nola bizi, sentitu eta entzuten" duten jakin gura du, eta "ideiak, proposamenak, ekarpenak, ametsak entzun eta partekatuzko" tailer irekia eratu dute: urriaren 27an, kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Zerga eta tasak %0,2 igoko dira, orokorrean

IURRETA A. B.

Zerga eta tasen %0,2ko "gaurkotze" orokorra egingo du udalak, 2016an. "Larregi zergapetu gabe, sarrera eta gastuak ordezkatzeko oso neurrizko igoera" egin dute, Totorikaguena alkatearen berbetan. Izan ere, azken bi urteetan, bere horretan mantendu dira zerga eta tasak, gastuak igo arren. Hala ere, zenbait hobari zabaldu dituzte.

Errenta aitoparen eta familia kide kopuruaren arabera, %50 edo %75eko hobaria egingo da hileta-zerbitzuetan eta TAOren egoiliar txartelean. Familia ugariak ondasun higiezin zergan ere bai. Bestalde, estolderia tasa ordaintzera salbuetsita egingo dira zerbitzua hartzen ez dutenek edo putzu septikoa dutenek.

Diru-laguntza eskatu dezakete igerilariek

Urriaren 31ra aurkeztu daitezke eskariak, udaletxean

ZALDIBAR I.E.

Herrian aukera hori eduki ez, eta inguruko herrietako igerilekuen erabiltzaile diren zaldibartarrei diru-laguntza eskainiko die, aurten ere, Zaldibarko Udalak. Hain zuzen, 2015. urtean, Abadiño, Berriz, Eibar, Elorrio, Ermua eta Durangoko kiroldegietako igerilekuak erabili dituztenek egin ahalko dute udalaren diru-laguntza jasotzeko eskaria. Urriaren 31ra arte edukiko dute aukera eskariak

udaletxean aurkezteko. Diru-laguntza eskabidea, NANaren fotokopia, eta aipaturiko igerilekuak erabili izanagatik egingako ordainketen agiria aurkeztu beharko dituzte.

Durango, Abadiño, Berriz, Eibar, Elorrio eta Ermuako igerilekuen erabiltzaileak diruz lagunduko dituzte

Sukaldaritza ikastaroa egingo dute, azaroan

Errekondo tabernan izango da ikastaroa, eguenetan

MAÑARIA M. O.

Azaroan, sukaldaritza ikastaroa egingo dute Mañarian, janaria prestatzen ez dakitenentzat edo ezer gutxi dakitenentzat. Edozelan ere, udaletik informatu dutenez, gura duen edonork parte hartu dezake.

Errekondo jatetxean, azaroko eguenetan egingo da ikastaroa, hilaren 5, 12, 19 eta 26an, hain zuzen ere. Karmele Alkortak eta Jokin Uriartek emango

dituzte klaseak, eta sukaldean ibiltzeko trukuak erakutsiko dituzte. Gainera, betiko jakiak prestatzen ikasteaz aparte, plater bereziak prestatzen ere ikasiko dute.

Ordu biko klaseak izango dira, 18:30etik 20:30era. Eta gero, prestatutako janariagaz afaldu egingo dute.

Udaletxean edo liburutegian eman daiteke izena. Epea gaur arratsaldean amaitzen da.

June Baunza durangarrak irabazi du jaietako argazki lehiaketa

Juneren ahizpa den Ane Baunzaren argazkia bigarren geratu da

IZURTZA J.Derteano

Jaietako argazki lehiaketako irabazleak jakinarazi zituzten atzo. Kultura Batzordeak osa-


tutako epaimahaiaren ustez, June Baunza durangarraren argazkia izan da denetan onena. Argazkiak umeak plazan



Umeendako jolasak, plazan, atzealdean udaletxea duela.

jolasean erakusten ditu, atzealdean udaletxea duela. Argazki irabazleak 100 euroko saria du. Bigarren saria Juneren ahizpa irabazi du, Ane Baunzak. Bere argazkiak Santo Tomas ermita eta dantzariak batzen ditu. 75 euro jasoko ditu argazki horregatik. Hiugarren saria, 50 eurokoa, Lidia Azkarate izurtzarraren argazkiarentzat izan da. Santa Ageda ermitaren parean jartzen den tabernan izurtzar koadrila bat jai-giroan islatzen du argazki horrek.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiak jendaurrean erakustea da asmoa. Abenduaren 6an, San Nikolas egunean, argazkiekin erakusketa antolatuko dute.



Gaztetxeak bere ibilbidea hasi zuela, 17 urte betetzen dira gaur

Hainbat ekintza izango dira asteburuan, Gaztetxearen urteurrena ospatzeko



Aurreko urteetan bezala, bizikleta martxa egingo dute, aurten ere. Bihar, 11:00etan abiatuko dira, Gaztetxetik.

ABADIÑO Itsaso Esteban Atzotik dabilta Abadiñon, Gaztetxearen urteurrena ospatzen. Izan ere, 1998. urteko urriaren 23an hasi zuen Abadiñoko Gaztetxeak bere ibilbidea. Hamaizpigarren urteurrena dute ospatzeko, beraz. Atzo, egue-netan herriko tabernek egiten duten pintxo-poteagaz bat egin zuten, eta serigrafia tailerra ere burutu zuten, iluntzean. Gaztetxearen 17. urteurrenako logoa serigrafiatu zuten bertaratu zirenek, euren arropetan.

Gaurko eta astebururako ere, hainbat ekintza antolatu dute 17. urteurrena ospatzeko. Gaur, Probalekutik gaztetxera

kalejira egin dute, eta Talde Batuak-eko umeen dantza emanaldia izango da. Iaz bezala, txopoa altxatuko dute, eta luntxa eta argazkien proiektzioa egingo dute.

Bihar, bizikleta martxa, babajana, herri olinpiadak eta kontzertuak izango dira Abadiñoko Gaztetxean

Bihar, bestalde, azken urteurrenetan bezala, bizikleta martxa egingo dute, 11:00etan, Gaztetxetik aterata. Babajana, 14:30ean, eta perkusio ema-

naldia izango dute, ondoren. 17:30ean, herri olinpiadak. Gauerako, hiru kontzertu antolatu dituzte: Tributo Eskorbuto herriko taldea, Bajo Presión eta Akerjenbe Sound Sistema taldeak ariko dira, 23:00etan.

Luntx bategaz emango dituzte urteurrenako ospakizunak amaitutzat, domekan, 17:00etan, garbiketa egiteko eta txopoa kentzeko elkartu ondoren.

Azken urteetan, Gaztetxeko mugimenduan geldialdia gertatu bada ere, iaztik martxa hartuta dabilta 17 eta 25 urte arteko abadiñarrak. Horren adibidea da, udaberrian martxan ipini zuten ortua, esaterako.

Elkartea eratzea proposatu die udalak merkatari eta ostalariei

ABADIÑO I.E.

“Herriko merkatari eta ostalarien ekarpen eta kezka jasotzeko” helburuagaz, eurekin elkartzeko deialdia egin zuen gobernu taldeak, joan den martitzen goizerako. Batzar bana egin zuten elikadura arloko merkatariekin, eta arropa dendetako arduradunekin eta ostalariekin. Batzarrean udalaren ordezkari izan zen Iñaki Rekaldek azaldu duenez, dozena bat lagunak erantzun zioten gobernu taldearen deialdiari.

Elkarte bat eratzea

Udalak merkatarien elkarte baten sorrera bultzatu gura duela adierazi zuten, besteak beste, batzarrean bildutako merkatari eta ostalariei. Eta data oraindik zehazteke dagoen arren, Durangoko edo Elorrioko merkatari elkarten ordezkariekin beste batzar batera deituko dituzte merkatari eta ostalariak, abadiñarrek elkarte horien esperientziak ezagutu ditzaten.

Mota honetako batzar batean, auzoetako bizilagunekin batu zen Rekalde, uda aurretik, “herritarrekin harreman zuzena lantzeko” asmoz. Gobernu taldeak adierazi duenez, “batzar haien arrakasta ikusita, udaleko nekazaritza eta merkataritza garapen arloa, herritarren parte-hartzeari dagokionez, erreferente izatea” gura dute.

Antsietatea zelan kontrolatu ikasteko tailerra hasiko da azaroan

ATXONDO J.D.

Azaroan zehar, ikastaro berri bat hasiko du Durangaldeko Amankomunazgoak, Atxondon. Oraingoan, antsietateari aurre egiteko gakoak eskaintzen dituen tailerra eskainiko dute. Lehen klasea azaroaren 4an izango da, eguaztenean, eta ondoren, azaroko eguazten denetan batuko dira, 17:00etatik 18:30era, Atxondoko eskoletan.

Gaur egun, gauza asko aldi berean egiteko joera dago, eta karga horrek, azkenean, estresa eta antsietatea eragiten ditu. Egoera horri aurre egiten laguntzeko aholkuak emango dituzte antolatzaileen esanetan.

Azaroko eguazten guztietan, Atxondoko eskoletan batuko dira, 17:00etatik 18:30era

Jubilatuak Gernikara

Bestalde, Anbotoko Dama nagusien elkarteak egunpasa antolatu du Gernikara, astelehenean, urriko azken asteleheneko azoka bisitatzeko. Arratsaldea Lekeition emanango dute. Autobusa egongo da Arrazola, Axpe eta Apatatik. Aurretik izena eman beharra dago: 25 euro bazkideek eta 28 bazkide ez direnek.

Arrierrekak ekarritako aberastasuna aztergai

Ereñatik Garaira bisita gidatuan joango dira, domekan

BERRIZ Amaia Ugalde

Arrierrekako urak sortzen duen energia era askotara aprobetxatu dute berriztarrek eta berriztar ez direnek. Erreka-aren ibilbidean sortutako errota zaharrak irina egiteko, burdinolak, Bizkaiko lehen paper fabrika, zentral hidroelektrikoak... Hamaika erabilera, beste horrenbeste ogibide, eta historia bizia daude Arrierrekaren inguruan. Horien berri izateko, domeka honetan bisita gidatuak egingo dituzte, Ereña auzoan hasi eta Garairaino.

Domekan talde bi irtengo dira Ereña jatetzeko aparkalekutik: 11:00etan euskarazko bisita hasiko da, eta ordu erdi lehena-

go, gaztelaniazkoa. Ondare Jardunaldien barruko bisita da, eta Gerediaga da koordinatzailea. Izena emateko, 673 005 981 telefono zenbakira deitu behar da.

Durangoko farolen argia

Euskarazko bisita gidatua Garazi Arrizabalaga berriztarrek egingo du. Azaldu duenez, ibilaldian, errota, burdinola eta paper-fabrika izan zen Erroteta eta Patala zentral hidroelektrikoa bisitatuko dituzte. XX. mende hasieran, hamar zentral hidroelektriko zeuden Arrierrekan, eta batzuk Durangoko Udalarenak ziren: “Durangoko farolak isiotzeko energia ateratzen zuten bertatik”.

Irizar eta Amuriza, kontzertu solidarioan

Liberian osasun proiektuei laguntzeko ekimena da

BERRIZ A.U.

Juan Carlos Irizar piano-jotzaileak eta Xabier Amuriza bertsolariak kontzertu berezia eskainiko dute, bihar, Berrizko kultur etxean. Liberian osasun mentalaren inguruko proiektuei laguntzeko, kontzertu bira antolatu dute *We are like you* izenburuagaz, eta Berrizkoa izango da azken aurreko kontzertua. Kultur etxean, 20:00etan, hasiko da musika emanaldia.

Juan Carlos Irizar musikari eta konpositorea herriz herri dabil, tokian tokiko artistekin, kontzertu bira berezia egiten. Kontzertuen bidez, Aita Menni osasun erakundeak Liberian

daukan lankidetzara programa lagundu nahi dute. Ahizpa Ospitalariarekin elkarlanean, osasun mentalaren inguruko proiektuak garatzen dabilta Aita

J.C. Irizar herriz herri dabil tokiko artistekin; zapatuan, Xabier Amurizagaz eskainiko du kontzertua

Mennikoak. Ebola izurriteak kaltetutakoei laguntza psikologikoa ematen ere badabilta.

Kontzertuaz gainera, zapatuan, azoka txikia ere atonduko dute, kultur etxean.

Uztailaren 29a izendatu dute Elorrioko 2016ko jaiegun ofiziala

ELORRIO M.O.

Egutegiek sortzen duten karanbola baten eraginez, elorriarrek jaiegun ofizial berri bat edukiko dute 2016an. San Inazio eguna domeka denez, Bizkaiko Foru Aldundiak eguna aldatu, eta uztailaren 4a izendatu du Bizkaiko jaiegun ofizial, Elorrioren urtero ospatzen den San Balendin Berrio-Otxoaren eguna, hain zuzen ere.

Horregatik, elorriarrek beste egun batean hartu behar izan dute egutegiaren arabera zor zaien jaieguna. Uztailaren 29a izan da udalak herriko jaiegun ofizial izendatzea erabaki duen eguna, azken osoko bilkuran onartuta.

Ohituren indarra (II / II)

> PRAKAGORRI

Gizaki bakoitzak bereak dituen jarduera-ereduak sinesmenen eta emozio-blokeoen oinarrian programatuta daude eta sarritan egokienak ez diren ohartu eta gure burmuin kontzientearen bitartez jarduera-eredu horien aurka kemenez ekin eta eurengan aldaketak egin nahi izaten ditugun arren, jardura-eredu horiek nola sortu eta diharduten jakin eta ulertzeak baino ez du kontzienteki lortu nahi ditugun helburuak lortzeko gure subkontzienteari lan nola eraginarazi diezaiokun ahalbidetzen.

Mahatma Gandhik aspaldi adierazitakoa da: "Zure sinesmenak zure gogoeta izatera iristen dira; zure gogoetak zure hitzetan gauzatzen dira; zure hitzak zure ekintzak dakartzate; zure ekintzak zure ohitura bihurtzen dira eta zure ohiturrak zure patu dira."

Bizi garen errealitatearen mundua ulertzeko subkontzientean mailako heziketa landu beharra dago. Aipatu dudana heziketa hori, gutariko bakoitzaren barne-aldaketaren bitartez helburu jakinak lortzeko gure subkontziente mailara garamatzaten energia-teknikak erabiltzean datza.

Maila kontzientean ezagutzak barneratzera bideratutako heziketa eta subkontziente mailako heziketa elkarren osagarri izanik, litekeena da epe oso laburrean garapen mailak lortu eta eraldaketa pertsonala ere izatea.

Subkontziente mailako heziketa sinesmen eraldaketen eta emozio blokeoen askapen bidez ohiturak aldatzea ahalbidetzen duen teknika da. Ez da ahalegin ikaragarria eta pazientzia asko eskatzen duen borondatearen indarrean edota luzaroan izan ditugun erreakzioen kontrol kontzientean oinarritutako prozesua. Prozesu askoz errazago, arinago eta eraginkorragoa da.

Burmuin kontzientearen eta inkontzientearen arteko desberdintasun handiak dira subkontziente mailako heziketa deritzon kontzeptua ulertu ahal izateko giltzarri. Eragin-kortasunez jardutea da guztion helburua. Pertsona eraginkorrek eguneroko bizitzaren arlo guztietan efizientzia lortu ahal izateko maila pertsonal zein pertsonen artekoan garapen eta hazkuntzarako prozesu baten egitura diren ohitura egokiak barneratu dituzte. Prozesu pertsonala da eta erronka handia suposatzen du, bakoitzak bere lepoan daramatzan ohitura ez-eraginkor guztiak baztertzeaz

gain euren oinarri diren emozio eta sinesmenak ere errotik ezabatzea baitakar.

Eraginkortasun maila jasoa izateak, lortu nahi diren helburuak lortzea dakar eta, gainera, jarraitortasunez emaitzak izaten jarraitzeko eran gauzak egiten jardutea. Eragin-kortasuna, norbere tresnak egoerarik hoberenean izanez helburu ezarritakoak lortzean datza. Eragin-korra, baliabiderik urriekin helburuak eskuratzen dituena da. Eragin-korra izatea, denbora batez etengabe jazartitako helburua eta gerora emaitza berdina izaten jarraitzeko egoerarik hoberenean norbere burua mantentzearen beharrezko maila berean edo antzerakoan jartzean datza. Eragin-kortasun iraunkorra lortzeko funtsezko balore edota printzipioetan oinarritutako ohiturak barneratuta izatea eskatzen du.

Gauza oro zuzentzen duten lege unibertsalak dira eta erantzukizuna, zintotasuna, leialtasuna, errukia eta antzeko ohitura iraunkorrek zindotasunez eustea ahalbidetzen dute. Ohiturak printzipio horietan oinarritzen dira.

Stephen R. Covey *-ren zazpi ohitura eraginkorren irakasbideek gizarte-baloreen edo hiru-garrenei helarazi nahi diegun irudia baino haratago iristen den barne eraldaketa garatzen dute.

Zazpi ohiturak landuz, egoera bakoitzari aurre egin eta egoera horiek ikusteko dugun eran eraldaketa sakonak ematen dira. Ohitura horiek, bizitza etengabeko heldutasunezko prozesutik bizi izatea ahalbidetzen dute, hau da, menpekotasunetik askatasunerako bidea garatzera garamatzan bizitza bizi izatea alegia.

Menpeko diren pertsonak nahi dutena lortzeko besteen beharrezkoak dute; askatasunean dihardutenak, ostera, nahi dutena euren ahaleginari esker lortzen dute. Azkenik elkarren menpeko direnek arrakasta handiagoa lortzeko elkarren arteko ahaleginak metatzen dituzte, buruzagi bikain eta taldekide egokiak izateko gaitasuna ematen duen heldutasun maila jasoagoa izanez.

Emaitza horietako batzuk honako hauek dira: helburu pertsonal eta profesionalak arinago eta errazago lortu, norbere lankideekin lanbide-harreman

hobeak garatu, sendiaren baitan harreman pertsonalak hobetzen ikasi eta egiten ditugun gauza guztietan askoz eraginkorragoak izaten ikasi.

Ohitura horiek elkarren artean erlasionaturik daude eta helburu erabat desberdinak dituzten hiru multzotan egituratzen dira.

Aurreneko multzoan lehen hiru ohiturak kokatzen dira eta norbere meneratzeaz arduratzen dira. Ohitura hauek, buru- eta emozio-askatasunak lortzeko, bakoitzak duen erantzukizunari heldu eta norbere

Errealitatea ikusteko modua da pentsatzeko eta jarduteko dugun eraren iturburu.

gain hartzea lantzen dute. Multzo honetan garatutako ezaguri batzuk norbere buruaren ezagutza, barne-bakea, zintotasuna, autokontrola, norberegan konfiantza... dira.

Bigarren multzoan diren hiru ohituren bitartez nortasuna eta talde-lanaren, elkartasunaren eta komunikazio egokiz etekinik handiena ateratzea ahalbidetzen duten trebetasunak, hau da, elkarren arteko menpekotasunerakoak, garatzen dira. Multzo honen garapenak besteekin ditugun harreman onak maila sakonagoan kokatu eta, egun etenda edo bihurtuta daudenak berreraikitze gaitasuna ematen du.

Azken multzoa bizitzaren oinarritzko lau dimentsioen [osun fisikoa, burukoa, emozio-osasuna eta espirituala] zaharberritze orekatu eta aldizkakora bideratutako zazpigarren ohituraz osatuta dago. Aurreko sei ohiturak egoerarik hoberenean mantentze helburua dauka, bikaintasunerako bidea ezarritik. Ondoren, goi mailako eragin-

kortasuna lortzeko ibilbide diren zazpi ohitura horiek, labur baina, azalduko ditut:

Lehena, proaktibotasuna da. Ohitura honen adigai nagusia bizitza gure balore eta erabakien emaitza dela [eta ez bidean aurkitzen ditugun baldintzek eragindakoa] barneratzean datza. Edozein estimuluren aurrean guztiok dugu geure erantzunak erabakitze gaitasuna eta hortxe sortzen da gizakiaren hazkuntza eta zoriona.

Bigarrena, lortu nahi den helburua zehaztean datza. Sinenen dugun oro alde aurretik gure burmuinean irudikatu beharra dago. Ohitura hau ikuspegia, esanahia, helburua, asmoa eta antzerako bizitzari zentzua ematen dien kontzeptuetan oinarritzen da.

Hirugarrena, bakoitzak helburu dituenak lortzeko eskura duen denbora egokitasunez kudeatzean datza. Behin helburua zehaztu ondoren, garrantzitsu jotzen ditugun helburuak lehenesteko beharrezko diren ezagutza eta diziplina izan behar ditugu, besteenak diren premia edota lehentasunei bakarrik erantzunez jardun beharrean.

Laugarrena, elkarren irabazia lantzen du; alde biezako irabazpide izango diren hitzarmenak egitean datza, gizaki batek lortutako arrakastak ez baitu beste baten kaltetan izan behar.

Bosgarrena, gizakien artean sarriago (oso gutxitan erabiltzen baita) erabili behar gurek urrezko ohitura dugu. Lehendabizi, ezertan hasi aurretik, besteen adierazpenengana benetako atentzioa jarri eta esaten dizkigutenak ulertu eta gogoan izan behar dira; eta gero, ez arinago, izango dira norbere azalpenak. Ohitura hau komunikazio eraginkorrerako urrezko araua da.

Besteek adierazten dizkiguten gauzez interesa erakutsi, arretaz jardun, benetan arduratu, euren egoerez jabetu eta guztiz ulertzea da akordio atsegin eta orekatuak lortzeko biderik erraz eta arinena. Gizakion

artearen sarritan sortzen diren istiluak urrezko arau hori inoiz aintzat hartu ez egitetik eratorritako praktika ezak eragindakoak izaten dira. Harreman eraginkorrek izaterik nahi bada, ezinbestean enpatiaz jardun behar da, hau da, ulertzeko jarraz eta aurreikuspenik gabe.

Seigarrena, taldean lan egin eta sormenezko elkarkidetzarekiko dugu. Garapen handia lortzeko gizaki bakoitzak bere baitan duenik hoberena atera eta erabili behar da. Ohitura hau, zatien batuketa baino osoa beti handiagoa denaren printzipioan oinarritzen da.

Zazpigarrenak, eraberritzea, jarraituko ikaskuntza eta etengabeko hobekuntza lantzen ditu eta, maila fisikoan, mentalean, emozionalean eta espiritualean zaharberritzeko gaitasuna daukagunaren printzipioan oinarritzen da.

Pertsona guztiok kategoriatu maila edo mapa desberdin bi ditugu buruan: gauzak edo errealitatea nolako den azaltzera datorkiguna eta nolakoak izan beharko luken kontrajartzen diguna. Gure bizipen guztiak buru-mapa horien arabera interpretatzen ditugu eta gutxitan zalantzan jartzen dugu euren zorrotasuna. Are gehiago: gehienek daudenik ere ez dakitela esatera ausartuko nintzateke.

Egia esan, gauzak ikusteko dugun modua eta errealitatean gertatzen dena bat datozela ziurtzat jotzen dugu. Aipatutakoak gure jarrera eta jardueren iturri dira. Errealitatea ikusteko dugun modua da guk pentsatzen dugun moduaren eta jarduten dugun eraren iturburu.

Egun ditugun pentsaera, jarrera eta jarduerak aztertuta eta ohitura hobeak barneratuz geure izana eraldatu eta gure bertsio bikaina lortzea gure benetako barne-nahiaren eta borondatearen esku besterik ez dago. Erabakia, bakoitzak berea.

Gorka Aurre
PRAKAGORRI

irakurri 4

ALDIZ ARINAGO

EMAITZA HARRIGARRIAK!

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak! Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak. Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



PRAKAGORRI
Reading skills

Tel.: 944 915 763
Kurutzia kalea, 30
DURANGO
prakagorri@prakagorri.es

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide

* R. COVEY, STEPHEN.,
Los 7 hábitos de las personas altamente efectivas.
Barcelona, Ediciones Paidós Ibérica, 2009



Kanpainako arduradunak atzo goizean udaletxean egindako aurkezpenean.

Euskararen erabilera sustatzeko, '501 baietz' kanpaina abiatu dute

Herritarrei nork bere konpromiso pertsonalak hartzeko eskatzen diete

ZORNOTZA J. D.

Zornotzan euskararen inguruan egindako azterketa batek euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen arteko desoreka erakusten du: hiztun kopurua %53koa da, baina erabilera ez da kopuru horren erdira heltzen: %23. Horrela, euskararen normalizazioaren bidean erabilerak duen garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko, '501 baietz' izeneko kanpaina abiatu du udaleko euskara sailak.

Udalak baliabideak jarriko ditu, baina herritarrak izango

dira protagonista, eta kanpainak parte-hartze aktiboa eskatuko die. Honakoa da eskatzen zaiena: nork bere ohiko bizimoduan erabilpena handitzeko konpromisoak hartu ditzala; konpromiso xumeak zein anbizio handiagokoak, nork bere errealitatearen eta euskara mailaren arabera hartutakoak. 500 konpromisotik gora batzea da helburua.

Konpromiso horiek, idatziz zein bideoan grabatuta helarazi daitezke udalera, urriaren 26tik aurrera. Horretarako, hiru

bide ireki dituzte: 501baietz@ametx.net helbide elektronikoa, twitter-eko #501baietz etiketa, eta udal zerbitzuko eraikinetan jarriko dituzten buzoiak. Helbide elektronikoa eta buzoiak mezuei bideratuta daude, eta twitter etiketa mezuak zein bideoak jasotzeko.

Datorren astetik aurrera, kanpainari zabalkundea emateko sortu dituzten bideoak emititzen hasiko dira, eta herritarrek ere hori erabili dezakete bideo propioak egiteko. Bideo horietan, askotariko adin tarte

eta jatorriko eragileak ageri dira, bakoitza bere konpromisoak hartzen. Tartean daude Xabi Etxeita futbolaria, Iñaki Iza pilotaria eta Iraia Garcia korrikalaria.

Konpromiso etengabea

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da, eta egun horri begira antolatuta dute kanpaina. Baina ez dute egun bateko ekitaldira mugatu gura, Rafa Ugalde euskara teknikariaren esanetan: "Horregatik, abenduaren 3a ardatz hartuta, aurretik jendearen gogoetan eragingo duen kanpaina hau egitea erabaki dugu".

Abenduaren 3an jasotako bideo eta mezuak herrira zabalduko dituzte, eta udalaren partetik adierazpen instituzionala irakurriko dute. Ikastetxeetako gazteekin batera ere antolatuko dituzte ekimenak. Ikastetxeetan eman dute kanpainaren berri eta "badakigu batzuek kanpaina bere egin dutela", adierazi du Idoia Zuloaga euskaltegiko zuzendariak. Datorren astean beste batzar bat dute ikastetxe-ko arduradunekin gaia gehiago zehazten joateko.

Kanpaina ez da abenduaren 3an amaituko. "Etengabea kontzientziazioa" izan dadila gura dute. Horregatik, ostean, jasotako konpromiso denen jarraipena egingo dute. Denei mezu bana idatziko diete hartutako konpromisoa gogoraraziz, eta betetzen jarraitu dezatela eskatuz: "Konpromiso sendoak eta benetakoak izan daitezela gura dugu".

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



2016aren zain

Zorioneko gaude, aurtengo San Fausto jaietan, oro har, alde negatibo gutxi aipatu behar delako. Alde onak, ostera, asko izan dira, eta ia ezinezko egiten zait denak aipatzea. Dena dela, aipagarriak diren batzuk nabarmenduko ditut. Denak ez, ez baititut denak ezagutzen. Nik aipatutakoez gain, irakurleak ere izango ditu bizi izandako esperientzia atsegin eta ahaztezinak.

Ia azkenetik hasiko naiz. Mozorro Eguna, beste urtebetez, ikaragarria izan da. Bai, ikaragarria durangarrek kolore, irudimen, sormen zein sinpatiaz jantzi dutelako gure hiribildu polita. Urtero, gehiago eta hobeto mozorrotzen gara, eta horri esker, giro ezin hobea sortzen dugu. Giro on hori da, niretzat, San Faustotako ederrena. Eta jakina, giro onarekin, egunak 24 ordu baino gehiago irauten du. Mozorroen zapatuak, gutxienez, domeka goizerdirarte irauten du, Zezenak Dira ekitaldiaren osterarte.

Zinegotzi moduan, esperientzia ahaztezin bizi izan dut, eta alde pribilegiatu batetik gozatu dut zuekin denekin. Gogoangarria, benetan. Besteak beste, txupinazioan ikusi zaituztet udaletxeko balkoitik, artopilak banatu ditut, eta hirugarren adinekoen bazkarian ere egon nintzen. Han, harrituta geratu nintzen, jende gaztea baino ez nuelako ikusi, ondo pasatzeko gogo ikaragarriarekin. Une askotan, eguraldi bikainak lagundu digu bi asteburuetan. Eguraldi txarreko tartetxoak ere izan ditugu, baina umorez egin diegu aurre, alaiak eta dibertigarriak gara eta. Durangarrak gara, eta hori begi bistan dago.

**Erredakzioan itzulita*

Herritarren proposamenekin osatuko dituzte udazkeneko ikastaroak

Urriaren 28a baino lehenago jakinarazi behar dira proposamenak

OTXANDIO J. Derteano

Aurten arte, udaleko Kultura Batzordeak bere irizpideen arabera antolatuta izan ditu udazkeneko eskaintzen diren ikastaroak. Aurrerantzean, ikastaroak antolatzeko eredu aldatu

egin dute, eta, lehenengo, herritarrei proposamenak egiteko aukera eskaini diete.

Orain arteko eskaintzak, oro har, eskari zabalak izan du. Baina, antolaketa eredu herritarrengandik hastea modu

egokia dela uste dute, otxandiarren beharrezan jakiteko eta ikastaroen eskaintza horien arabera osatzeko: "Gure iritzian, herritik irteten den ekimena da lagundu beharrekoa. Horrela, aukera gehiago dugu gauzak

ondo egiteko, eta horretarako, galdetzea da lehen pausoa", dio Urtzi Armendariz alkateak.

Udazken-negu parteko aurtengo ikastaroak modu horretara antolatzea da asmoa. Proposamenak urriaren 28a baino lehen helarazi behar dira udaletxera: kultura@otxandio.net.

Proposamenak aztertzerakoan, kontuan hartuko dute eskaintza euskarazkoa izatea, herritar denentzat izatea, eta gehienez, 30 ordukoa edo hiru hilabetekoa izatea.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

EH Bildu eta Herriaren Eskubidea Amankomunazgoan elkarrekin

“Aldaketaren aldeko akordioa” sinatu dute alderdiek, elkarlanean jarduteko



Ezkerretik eskumara, EH Bilduko Lorea Muñoz eta Aitor Lopez, eta Herriaren Eskubideako Julia Perera eta Julián Ríos.

DURANGALDEA M. O.

“Amankomunazgoa, aldaketa politikak garatzeko giltzarri lez ikusten dugu”. Hori da EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen (Podemos-Ahal Duguk babestutako hautagaitza) irakurketa. Horregatik, “aldaketaren aldeko akordioa” sinatu zuten eguaztenean, eta legealdi berrian elkarlanean jardungo dute. “Erakundeak herritarren zerbitzura” jarri behar direla adierazi zuten sinadura ekitaldian. EH Bilduk gehiengo osoa lortu du akordioagaz.

Akordioa helburu zehatz batzuen arabera adostu dute. Hiru ardatz ezarri dituzte: bazterketa soziala saihesteko politikak garatzea, parte-hartze zuzena eta

aktiboa bultzatzea, eta udalekin lan eginez “eskualde ikuspedia berreskuratzea”. Arloen kasuan, enplegua, industria garapena, berdintasuna, partaidetza, euskara, kultura eta garapen jasangarria izango ei dira lehentasunak.

Ongizatea, Pereraren esku

Eratutako lau batzorde nagusietako bat, Ongizatekoa, Julia Pererak zuzenduko du, Herriaren Eskubidearen ordezkariak. Izendapen horrek, gobernuaren norabideaz asko esan dezake. Aitor Lopez presidenteak Ogasuna eta Langilegoa batzordea zuzenduko du, Endika Jaiok Toki Garapeneko, eta Eider Uribe Euskara eta Kulturarena.

Edozelan ere, alderdi biek ez dute akordioa “tradizionalki boterean egon diren alderdien kromo aldaketa” lez ikusten. Azaldu dutenez, batzordeetako presidenteen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatuko dituzte. Bilkuretan babesa emango diote elkarri, baina, “talde bakoitzaren autonomia errespetatuz”.

Soldata, behera

Bestalde, Aitor Lopez presidentek soldata jaitzi du. Aurreko legealdiko 54.000 eurotatik 48.000ra jaitzi du, baina gainera, hortik 6.000 EH Bildu koalizioari dohaintzan emango dizkio. Guztira, urtean, 28.000 euro garbi kobratuko ditu.

Hondakin organikoa birziklatzeko kanpaina martxan ipini dute

Hasi dira informazio batzarrak Abadiñon, Atxondon, Elorrion eta Zaldibarren

DURANGALDEA A. U. / M. O.

Amankomunazgoak organikoa batzeko bultzatutako kanpaina martxan dago lau herritan.

Dagoeneko hasi dira informazioa emateko batzarrak, eta Abadiño, Atxondo, Elorrio eta Zaldibarreko herritarrek badu-

te izena emateko aukera. Bosgarren kontainera erabiliko dute herriguneetakoek, eta konposta egingo dute baserri ingurueta-koek zein lursaila dutenek.

Abadiñon eta Zaldibarren asteon egin dituzte batzarrak, eta Atxondon eta Elorrion hurrengo astean burutuko dira, herri bakoitzean bi egunetarako aukeragaz. Atxondon, astelehenetan eta martitzenean egongo dira batzarrak, 19:00etan, eskolako gimnasioan. Elorrion, ostera, eguaztenean eta eguenean batuko dira, 19:00etan, Arriolan.

Kanpaina honen aurretik, Iurretan eta Traña-Matienan ere lantzen dabilta, 371 etxetan.



Iurretan arrakasta eduki zuen aurreko kanpainak.

Nekazaritzako lantresnen erakusketa dago Elizabarrin

GARAI M. O.

Burdina eta lanabesak izeneko erakusketa ikusgai dago Elizabarrin, burdinak nekazaritzan izan duen garrantzia erakusteko. Europako Ondare Jardunaldien barruan kokatu dute ekintza, eta joan zen asteburuan hasi ondoren, asteburu honetan amaituko da erakusketa. Hain zuzen ere, bihar eta etzi bisitatu ahalko dute herritarrek; goizez, 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara. Aldundiak bultzatu du ekintza, baina Gerediaga elkarteak koordinatu du.

Antolatzaileek azaldu dutenez, burdinak, garatzen eta hobetzen lagundu zion nekazaritzari. Izan ere, ordura arteko tresnak baino eraginkorragoak eta gogorragoak ziren burdinaz landutako tresna berriak.

Garaiko Elizabarrin atondutako erakusketan, orduko lanabesak industria-iraultzara arte zelan irauin zuten ikusteko aukera dago.

Reincidentes taldea urriko jaietara gonbidatu dute

MALLABIA Jone Guenetxea

Gaur arratsaldean jaurtiko duten txupinazoagaz abiatuko dituzte Urriko jaiak, Mallabian. Elizpeko pilota txapelketaren finala jokatu dute, jarraian. Afaltzeko, oilasko pintxoak banatuko dituzte, eta, ondoren, Beñat Ugartetxea eta Odei Barroso bertsolariekin bertso poteoari ekingo diote. Erromeriagaz amaituko dute eguna, Basajaun taldearen erromeriagaz. Bihar, futbito txapelketa eta erreskateko txakurren erakustaldia izango dira, goizean, eta nesken frontenis txapelketa eta pailazoen emanaldia, arratsaldean.

Reincidentes punk-rock taldea da aurtengo egitarauko izarra. Izan ere, bihar gauean kontzertua eskainiko dute sevilharrek PAM, Hesian eta DJ Bullekin batera.

Domekarako ere, egun osoko egitaraua prestatu dute. Txokolatadagaz amaituko dute asteburua, 18:30ean; plazan jarri dute horretarako hitzordua.

DURANGALDEA ASTEON

Kanpaina berria abiatu du Errigorak

DURANGALDEA > Bertako ekoizle- leen produktuekin osaturiko saskiak etxerik etxe zabalduz, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza bultzatzea helburu duen Errigora ekimenaren kanpaina berria abiatu dute. Eskariak non eta zelan egin jakiteko, www.errigora.eus webgunea baliatu daiteke.

Alternatiben Herrirako deia

DURANGALDEA > Zapatu honetan Bilbon egingo den Alternatiben Herria ekimenean parte hartzera deitu ditu LAB sindikatuak, Durangaldeko herritar- rarak. Gizarte eredu kapitalista eta patrialkalaren aurrean, bestelako ereduak egingarriak direla erakutsi gura dute, domekako ekintzen bidez.

Nagusien XXII. Aste Kulturala

ABADIÑO > Martitzenetik dabilta, pertsona nagusien XXII. Aste Kulturalako ekintzak burutzen, Abadiñon. San Prudentzio nagusien elkarteak antolatu du egitaraua. Bihar, San Prudentzio elizan mezatarako elkartu, eta Durangoko Plate- ruenean bazkaria eta dantzal- dia egingo dituzte.

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefona
• helbidea • Nortasun Agiriaren zerbakiak

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz



**“Oreka lortzea
gustatuko litzaidake”**

Liher Granados | Plateruenerako kudeatzaile berria

**“Gizartea aldatu den
hein berean aldatu
da Plateruena”**

Beñat Gaztelu-Urrutia | Plateruenerako kudeatzaile ohia

Beñat Gaztelu-Urrutia eta Liher Granados Durangoko Plateruena Kafe Antzokiaren aurrean.

> BERBAZ Nerea Iriarte
Hamaika urte eta gehiagorik Plateruenerako kudeatzaile izan da Beñat Gaztelu-Urrutia. Gorputza eta arima eskaini dizkio kultur egitasmo herritarri, bere hirugarren seme-alaba balitz bezala. Orain, kudeatzaile lana utzi, eta beste era eta erritmo batera laguntzeko unea dela esan diote Beñati gorputzak eta arimak. Liher Granadosen ilusioz eta gogotsu heldu dio Plateruenerari, presarik barik, baina etenik egiteko asmorik barik. Elkarrizketan elkarriketa.

Liher Granados: Nola bururatu zitzaizuen Platerueneraren moduko ekimen herritarra sortzea?

Beñat Gaztelu-Urrutia: Urteak generamatzen Berbaro Taberna kultur gune eta topaleku euskalduna sortzen eta garatzen. Begibistako mugak zituen egitasmoak, eta sasoi berriei baliabide berriei aurre egiteko momentua zela pentsatu genuen. Horrela sortu zen Plateruena. Hasierako egitasmoa

dezente aldatu da hamaika urte hauetan. Euskararen alde jardungo zuen kultur gune eta topaleku bat izatetik, espazio sozial euskalduna izatera pasatu gara. Gizartea aldatu den hein berean aldatu da Plateruena, logikoa den moduan.

B.G.: Zergatik esan zenion baietz, Plateruenerako ardura-dun lanari?

L.G.: Nire ikasketak zein esperientzia profesionalak lan harreman eta pertsonen kudeaketaren esparruan izan dira orain arte, eta banuen gogoak nire kultur zaletasunarekin lotura duen zerbaitetan lan egiteko. Aukera paregabea da nire profil pertsonala eta profesionala uztartzeko.

B.G.: Eta, nola ikusi izan duzu kanpotik Kafe Antzokia? ze itxura hartu izan diozu?

L.G.: Orain arte ez naiz Plateruenerako langilea izan, baina proiektua hasieratik ezagutzen dut bezero, musikari eta kulturzale naizen heinean. Iazko *Eta urte askotarako* kanpainaz geroztik, bazkidea ere banaiz,

**“
Etengabe eraberritu
behar den egitasmoa
da, eta ibilbide luzea
dauka egiteko”**

**“
Durangaldeko
eragileen agertoki
nagusia izan behar
da Plateruena”**

eta Plateruenerako bizi duen egoera ez zait ezezaguna egiten. Plateruena erreferentziatzeko kultur gunea da Durangaldetik haratago ere, eta bertan antolatutako ekintzak positiboki baloratu izan ditut erabiltzaile moduan.

L.G.: Eta nolako da barrutik, kanpotik dirudien bezain bizi eta erakargarria?

B.G.: Zeuri egingo dizut galdere hiru-lau hilabete barru! Batzuetan, egunerokoa astun

egiten da, hori ez dizut ukatuko, baina beti gogoan izan behar da emaitzak ikusi egingo direla uneren batean, eta Plateruenerako horixe dauka ona, hitzordu bakoitzean ikusten direla emaitzak. Gauza bat ziurtatuko dizut: ez duzu aspertzeko astirik izango.

I.G.: Ez dut uste, ez! 11 urtean zenbat kultur ekimen eta bestelako egin dituzuen ikusita...

B.G.: Denetarik egin da, bai. Aitortzen dut, akaso une batzuetan gehiegi ere antolatu dugula. Baina, aurrerantzean, herritarrek esango dute zer eta zelan egin behar den. Zilarberritzen gogoeta burutu genuenetik, kultur egitasmoan parte hartu nahi dutenentzat ateak zabalik ditu Plateruenerako. Hiru lantalde eratu ziren Komunikazioan, Sustapenean eta Programazioan eragiteko. Talde horietan mamitzen dena izango da Plateruena, etorkizunean. Alde horretatik, esango nuke etengabe eraberritu behar den egitasmoa dela, eta ibilbide luzea daukala egiteko oraindik.

B.G.: Aurrerantzean, ze proiektu berri egin nahiko zenuke edo zeren agertoki izatea nahiko zenuke Plateruenera?

L.G.: Durangaldeko eragileen agertoki nagusia izan behar da Plateruena, nire ustez. Horretan laguntzeko, Plateruenerako espazio desberdinak egokitu eta eskaintzen ari gara, erabili nahi dituenentzat: ganbara, kamerinoa, fabrika eta areto nagusia. Honen inguruan, badago anfiteatroa (fabrika) estaltzeko proiektu bat, eta berarekin epe laburrean burutzeko ahalegina egingo dugu espazio horrek eskainiko dituen aukerak lehenbailehen aprobetxatu ahal izateko. Honekin lotuta, espazioaren dekorazioarekin zerikusia duen proiektu berri batean ere lanean hasi gara. Horrezaz gainera, ostalaritzan ezarri ditugun zerbitzu berriak, gosariak eta igandetako bazkariak, antzokiaren martxa hobetzen laguntzea espero dugu.

L.G.: Plateruena utziko duzu baina ez erabat. Zer eman gogoz diozu etxe honi aurrerantzean, eta nola?

B.G.: Beti sentitu ditut ordulari bi martxan, bata neurea eta bestea Plateruenera. Nireak txirrina jo zuen orain urtebete inguru, atsedena hartzeko unea zela esanez. Plateruenerako ordularia aurrera doa, eta egitasmoa gogoberritzeko premia sumatu nuen. Horrela, ez da txirrina jotzeko zain egon behar. Denei esaten diet Plateruenera lan egiteari utziko diodala, baina ez dudala Plateruena utziko. Orain, laguntzeko gogoz nago, hainbeste urtean ehunka lagunak egin duten moduan. Lantalde horietako batean egingo ditut nire ekarpenak.

B.G.: Nora eraman nahiko zenuke Plateruena, talde osoaren laguntzagaz?

L.G.: Oreka bat lortzen laguntzea gustatuko litzaidake. Ez naiz oreka ekonomikoaz bakarrik ari, proiektu berriek ekar ditzaketan onurak aprobetxatu, eta denboran mantentzea izango da erronka, hala nola, eragile sozial eta kulturalak Plateruena espazio propio moduan erabiltzea eta ostalaritza zerbitzuak gizartearen aisialdi ohitura berriei erantzuten jakitea. Hori aurrera eramateko, ezinbestekoak ikusten ditut dauden esperientziadun lantaldea eta zuzendaritza berritua, betiere, bazkide eta boluntarioen laguntzarekin.

Gerediaga Elkartearen eta Azokaren sortzaileek jasoko dute Argizaiola

1965. urtean, frankismo bete-betean, Azoka sortzeko izan zuten “argitasuna” eskertuko diete sortzaileei



Azokaren antolatzaile eta babesleak elkartu ziren Landako Guneko eguazteneko agerraldian.

> AURKEZPENA Itsaso Esteban Koldo Alzibar, Jesus Astigarra, Maria Concepción Astola, Maria Rosario Astola, Jose Luis Lizundia, Carmen Miranda, Maria Arrate Salazar eta Leopoldo Zugazaren lana eskertu gura du 50. Durangoko Azokak. “Eurak izan baitziren Gere-

diagaren eta Azokaren lehenengo hazia landatu zutenak”. Abenduaren 5ean, San Agustin kulturgunean jasoko dute kultur gile horiek Argizaiola Saria, Karrika Antzerki Taldeak diseinaturiko ekitaldian.

Aurten, Durangoko Azokaren aintzatespena jasoko duten

norbanako horien izenak aurreratzeaz gain, abendura begira, beste hainbat albiste aurreratu zituzten Gerediaga Elkarteak, eguazteneko agerraldian.

50. urteurrena ospatzeko, Jesus Mari Arruabarrenak eta Joseba Sarrionandiak Azokaren historiaren errepasoa

egiten duen liburua kaleratuko dutela, esaterako. Arruabarrenak Azokaren bost hamarkadetakako testigantzak bildu ditu, eta kontakizun pertsonala egin du Iurretako idazleak, “distantziak ematen dion perspektibarekin eta ia azoka guztietan izan duenaren gertutasunetik”.

Egun bat gehiago izango du Durangoko Azokak, aurten. Azken urteetan legez, Landako Gune nagusiagaz batera, eus-kalgintzako eta kultur gintzako eragileek kudeaturiko guneak (Areto Nagusia, Szenatokia, Irudienea, Kabi@, Ahotsenea, Saguanbara, Plateruena eta Azoka TB) proposamenez beateak izango dira. Hain zuzen ere, Gune horien ordezkariak eta babesle publiko zein pribatuak bildu zituen Gerediaga Elkarteak eguazteneko aurkezpenean.

Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Ana de Castro Bizkaiko Aldundiko Euskara zuzendariak, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkateak hartu zuten berba, Gerediaga Elkarteak Azokaren antolatzaileria zoriondu eta eskertzeko.

Durangoko Azoka, ‘DA!’

Nerea Mujikak, bestalde, Durangoko Azokak aurrerantzean baliatuko duen irudi marka berria aurkeztu zuen. Azokaren siglarekin osaturikoa da marka berri hori: “DA!”.

Iraganari ez ezik, etorkizunari ere erreferentzia egin zion Gerediaga presidenteak, 2065 urtera begira jarrita: “Datozen 50 urteetako historia idatziko dugu eta datozen urteetako erronkei erantzuteko, Azokaren sortzaileen kemena beharko dugu”.

Azaro erdialdean egingo duten prentsurrekoan emango dute 50. Durangoko Azokaren inguruko nobedade gehiago.

Zumetaren kartelak koloreztatuko du 50. Durangoko Azoka

“Ilusio handia” egin zion enkarguak artistari

Txelu Angoitia eta Nerea Mujika Gerediaga kideek erakutsi zuten, eguazteneko prentsurrekoan, Durangoko 50. Azoka iragarriko duen kartela. Jose Luis Zumeta usurbildarrak egindakoa da. Margolaria ez zen Landako Guneko aurkezpenean egon, baina bere izenean adierazi zuten, “jendea erakartzeko helburuagaz” egin duela, eta “irekia” dagoela ikusle bakoitzaren interpretaziora. Ez da ez libururik ez diskorik ageri kartelean.

Durangoko Azokan, euskal musikari askoren diskoen eta idazleen liburuen azaletan, lehenago ere presente egon da Jose Luis Zumetaren arte-

lanen kolorea. Aurten, baina, Gerediaga Elkarteak Azokako kartela diseinatzeko egindako enkarguari esker, sekula baino bingarago egongo da usurbildarraren lana, euskal kulturaren plazan. “Poz-pozik” eta “motibazio handiagaz” hartu du artistak Gerediaga Elkartearen enkargua: “Ilusio handia egin zidan eskaria jasotzeak, Azoka oso garrantzitsua baita euskal kulturarentzat, eta baita arte plastikoentzat ere”.

Aurkezpenean gogora ekarri dutenez, Durangoko Azoka 60ko hamarkadako euskal kulturaren birsortze aldi baten barruan sortu zen. Azoka bezala, duela bost hamarkada sortu



Azoka bezala, duela 50 urte sortu zen Gaur artista taldeko kidea izan zen Zumeta, aurtengo kartelaren egilea.

ziren Euskadi Irratia eta Ikastolak, esaterako, eta baita, Ez Dok Hamairu edo Gaur sortzaileen taldeak. Hain zuzen, azken talde horren partaide izan zen Jo-

se Luis Zumeta, 50. Durangoko Azokaren kartelaren egilea.

Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidenteak azpimarratu zuen bezala, historia

horrek, “50 urte hauek, egin gaituzte”. Historia horren protagonistak omenduz, etorkizuna ospatuko du, abenduaren 4tik 8ra, Durangoko Azokak.

> MUSIKA Itsaso Esteban Azaroaren 27an, Bilboko Bilborock aretoan izango den finalean, hogeita minutuko emanaldia eskainiko dute Yoko Out taldeko durangarrek, eta Banden Lehia musika lehiaketaren finalera ailegatu diren beste hiru taldeek. Epaimahaiak final horren irabazle izendatzen duen taldeak Baga Biga diskoetxeagaz disko bat grabatzea, eta Bilboko BBK Live eta Bartzelonako Euskal Herria Sona jaialdian jotzea jasoko du sari moduan.

Disko bat grabatzea, eta BBK Live eta Euskal Herria Sona jaialdian jotzea dira lehiaketaren sariak

Euskararen garapenerako IKT teknologia baliatzen dituen Azkue Fundazioak antolatzen du Banden Lehia musika lehiaketa hau, eta zazpigarren edizioa da aurtengoa.

Publikoak eta epaimahai batek erabakitzen dute zeintzuk taldek duten finalean aritzeko aukera. Yoko Out durangarrek, Ozhen, Begiz Begi, eta De-



Bilborockeko finalean, hogeita minutuko emanaldia eskainiko dute finalera ailegatu diren lau taldeek.

Banden Lehia musika lehiaketaren finalean joko du Yoko Out taldeak

Azaroaren 27an Bilborocken izango den finalean joko dute, beste hiru taldegaz

sore sartu dira aurtengoa, finalean. Lehiaketaren webgunean egon dira kantak entzungai, eta euren iritzia eman duten musikazaleen 13.970 botogaz, Bermeoko Ozhen taldea aukeratu dute

entzuleek. Musika arloko hiru profesionalak osaturiko epaimahaiak aukeratu ditu, berriz, Baionako Begiz Begi, Desore igorretarrak, eta Durangoko Yoko Out.

Musika arloko hiru profesionalak osaturiko epaimahaiak aukeratu du Yoko Out, finalista izateko

Antzerkian trebatzeko eskaintzak eskualdean

Klownaren inguruko ikastaroa aukeran, Abadiñon

> ANTZERKIA

Antzerki mundura gerturatu gura duten Durangaldeko herritarrek askotariko aukerak dauzkate, ikasturte honetan ere, eskualdeko herrietan eskaintzen diren tailerrei esker.

Antzerkiko klown kode teatralaren inguruan jardun gura duenak, esaterako, Abadiñon edukiko du kurtso honetan aukera. Izan ere, Bizkaiko Hospitaleko Irriki clown elkartearen eta udalaren eskutik, ikastaroa gidatuko du Maite Guevara aktore gasteiztarrek, eguenetan, Txanporta kultur etxean. Informazio gehiago jaso, edo izena

eman gura duenak, jjaviermuru@gmail.com helbide elektronikora idatz dezake, edota 658 732 190 telefonora deitu.

Markeliñegaz, Zornotzan

Antzerkia modurik zabalenean landu gura duenak Zornotzako Markeliñeren eskutik ere izan dezake aukera, 2015-2016 ikasturte honetan. Azarora arte egongo da Markeliñeren ikastaroan izena emateko aukera, eta proba egitera joateko aukera ere izango du, ordura arte, gura duenak. Eguaztenetan, 18:30etik 20:30era dira tailer horren saioak, Zornotza Aretoan.

Kataluniako dantza jaialdi batean, Kriskitin

Festa de Tardor jaialdirako gonbidapena jaso dute

> DANTZA

Urriaren 21etik 25era Sant Cugat del Vallésen (Bartzelona, Katalunia) burutuko duten Festa de Tardor jaialdiaren 40. edizioan parte hartuko dute Durangoko Kriskitin taldeko dantzariak eta musikariak. Euskal Herriko hainbat dantza, zuzeneko musikagaz, eskainiko dituzte Kriskitinek Kataluniako jaialdi horretan, bihar, 19:30etatik aurrera: Mediterrània taldearen emanaldiaren ostean ariko da Kriskitin.

Mediterrània taldeak gonbidatu ditu dantzari durangarrek. Izan ere, iaz Durangon

egon ziren talde horretako dantzariak, Kriskitinek kulturartekotasuna lantzeko daukan helburua gauzatu.

Eguaztenetik domekara arte dabilta kultur jaialdi horren 40. edizioa burutzen Sant Cugat del Vallesen

Deneriko emanaldiak biltzen dituen jaialdia da Festa de Tardor; eztabaidak, poesia errezitaldiak, kirol, dantza, zein musika emanaldiak, esaterako.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Hitzaldi batzuez

Oso une gozoak eman ditugu azkenaldion Durangoko museoan. Atxagak *Harri baten inguruko gogoeta* moduan mozturrotu zigun literaturaren heriotzaren eta zientzia humanistikoaren balioaren gaineko hitzaldia. Oso bere estiloan, eta etxeko gertakari baten kontakizunetik abiatu —letrak ikasi nahi dituen alaba dela eta, gurasoek entzun behar dituzten inguruko erruki hitzak—, harribitxi baten jatorriari buruzko materialista eta idealistek dituzten azalpenen interpretazioetatik igaro, eta literaturaren defentsa sutsua egin zuen, literatur kontakizunak batuz gero, kontzientziaren deskribapena genukeela esaterainoko jario ederrean.

Eskualdeko historiaren inguruko Belen Bengoetxearen bidaia ere oso ondo kontatuta egon zen. Alorra ondo ezagutzeaz gain, transmititzen ere badakite irakasleek. Noizean behin, errepasatu behar izaten dira kofradi, elizate, hiri-bildu, merinalde eta abarrek gure bizitzaren antolaketarako egin zituzten ahaleginak, eta gobernatzen gaituzten erakundeen jatorria eta zergatia.

Joan zen astean, berriz, Juan Manuel González Cembellín-ek Margarita Maturanaren bizitza eta lana aurkeztu zizkigun. Zelako ezuste atsegina! Borrokalari handia, sozialista eta feminista, klaururako moja misiolariaren mugetan zirrikituen bila.

Eskerrak antolatzaile guztiei, eta honelako zabalakunde ahaleginak handitu, literaturaren heriotzaren garaian izpirituak elikagaia behar du eta, ez baita jende asko ikusten kultur ekitaldi mota hau kontsumitzen.

<http://www.josunearanguren.blogspot.com/es/>

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

Pub Quiz 6
Friday 23rd October, 9.30 pm
Plateruena-Antzokia in Durango

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

URRIAK 23
21:15ean
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

URRIAK 25
18:00etan
KANTALDIA
KANTALDIA

URRIAK 28
19:00etan
PLATERUENAREN URTEURRENA
JAIALDIA

Kreditua
Tanttaka Teatroa

Urriaren 25ean
19:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEA
IBANZORDE IBERIA

“Internet bidez saltzen ez baduzu, zureak egin du, eta badakizu”

Internet bidez saltzen ez baduzu, beste batzuek zuk baino lehenago egingo dute.



> MACROSOFT

Internet bidez saltzen ez baduzu, zureak egin du, eta badakizu. Zer dago adierazpen horren atzean?

Nahiko argi dago. Merkatari-tza tradizionala aldatu egin da, nostalgikoentzat zoritxarrez, eta orain, internet bidezko salmentak jabetu dira merkatuez. Merkatari askok badakite hori, baina ez dute sinetsi nahi, eta akats hori garesti ordaintzen hasi dira dagoeneko.

Baina, kontua da jendeak produktua ukitu egin nahi izaten duela erosi aurretik.

Eta egia da. Baina jendeak gero eta gehiago sinesten du ar-

gazkien eta bideoen bidez ikusten duen gauzetan. Produktua begietatik sartzen bada, eta enpresaren irudi serioa emateko gai bazara, jendeak erosi egingo du saltzen duzuna, zauden lekuan zaudela ere.

“

Tresna hauekin, laguntza ematen diegu enpresei. Denbora eta esfortzua aurrezteko pentsatuta daude”

Nola lagun diezaieke Macrosoft-ek saltoki eta ETE hauei? Macrosoft-ek ST (Salmenta-puntuko Terminala) aplikazio bat dauka saltoki eta ETE mota guztientzat. Automatiko ki konektatzen da azken belau-naldiko Web Denda moderno eta indartsu batekin, eta erraz eguneratzen da, automatiko ki. Tresna hauekin, laguntza ematen diegu enpresei, lehiakorragoak izan daitezen eta euren baliabideak hobeto erabil ditzaten.

Tresna honekin, merkataritzaren kudeaketa sinplifikatzen dugu, denbora aurrezten dugu, eta presentzia orokorra sortzen dugu. Horrek denak negozio aukera bat dakarkie saltoki eta enpresei, ETEei eta autonomoei.

Nola funtzionatzen du horrek?

Oso erraza da. STen sartutako produktu guztiak -deskribapen, irudi, prezio eta guzti-, automatikoki eguneratzen dira webgunean, eta beraz, beti eguneratuta dagoen denda on-line bat daukazu, aparteko esfortzurik gabe. Gainera, webguneko eskari guztiak zuzenean STen jasotzen dira, azkar eta eroso kudeatu ahal izan dezazun.

Ezinbesteko sistema dirudi, saltoki eta ETEei erraztasunak emateko. Ziurrenik, beste konpainia batzuek eskainiko dute hau.

Sistema hau denbora eta esfortzua aurrezteko pentsatuta dago, eta negozioaren kontrol handiagoa izateko. Lanak behin baino ez dira egin behar, eta ahalik eta eroso.

Kontuan hartu behar da teknologikoki oso produktu arreratu dela. Integrazio oso hau -Web denda, ST eta kudeaketa- eskaintzen duten enpresak oso gitxi dira.

Orduan, garestia izango da. Ez ba! Orain gutxi arte, aukera hau inbertsio-gaitasun handiko kate eta enpresa handien esku baino ez zegoen. Macrosoft-ek esfortzu ikaragarria egin du aukera hau edozein saltoki eta ETEren esku jartzeko. Gainera, gutxieneko inbertsioa eginda, eta beraz, hilabete gutxitan bihurtuko du errentagarriri. Gaur egun, ez dago aitzakiarik denda Online ez izateko, prezio onean eta ia esfortzurik egin gabe. Gainera, negozioaren automatizazio eta informatizazio digital prozesu guztiek bezala, inbertsio hauek diru-laguntzak jaso ditzakete, neurri handi batean.

Eta saltokiak edo ETEak dagoeneko badauka ST edo kudeaketa sistema bat?

Ez dago batere arazorik. Datuen, artikuluen, argazkien, bezereen eta hornitzaileen migrazioa ia edozein sistematik egin daiteke.

Zer egin behar du merkataritzak?

Bilakaera izan behar du, zirkunstantzietara egokitu. Bezeroa dendara ez badator, dendak joan behar du bezeroarengana.

Ez da derrigorra denagatik hasi behar izatea. Urratsez urrats joan daiteke. Hastea da garrantzitsua.

Zergatik Macrosoft?

15 urte daramatzagu merkatuan. Tokiko mailan eta estatu mailan egiten dugu lan, en-

presa mota guztientzat. Euskal Herrian baditugu bezeroak, eta baita Estatu mailan ere. Jendeak ezagutzen gaitu, eta ondo daki zein den gure konpromisoa eta dedikazioa gure egitasmo guztietan. Hementxe bertan gaude, baina urrutiko inplementazioak ere egiten ditugu. Nahikoa da ordenagailu normaltxo bat edukitzea, eta interneteko konexioa.

“

Macrosoft-ek batera lekukotzen ditu ST eta Web Denda”

“

Demo pertsonalizatu bat eskaintzen dugu, inolako konpromiso barik”

Ba al dago modurik produktua ikusteko, bere ezaugarriak, eta nola funtzionatzen duen?

Interesa duten pertsona guztientzat, demo pertsonalizatu bat eskaintzen dugu, inolako konpromisorik barik. 15 minutu baino ez dituzue behar, eta ez duzue ezer galtzekorik. Horretarako, interneteko konexioa duen ordenagailu bat baino ez duzue behar. Frogapena urrutitik egiten da, eta beraz, zuen negozioetatik mugitu beharrik ere ez duzue.



Macrosoft

J.M. Altuna kalea, 2 · 48200 DURANGO
Tel.: 946 814 342 · info@makrosoft.es
www.makrosoft.es

“Adituak gara saltokiei, ETEei eta autonomoei euskarria eskaintzen”

PROGRAMAK ETA FAKTURAZIO SOFTWARE-A SALTOKI, ETE, ETA AUTONOMOENTZAT.

- Garapen pertsonalizatuak neurri.
- ST (Salmenta-puntuko terminala) + Web denda + Stock-a.

ORDENAGAILUEN ETA ERAMANGARRIEN KONPONKETA.

WEB ORRIAK ETA WEB ATARIK.



> MUSIKA Itsaso Esteban

Urriaren 24an, bihar, Tolosako Bonberenea gaztetxe kontzertuan aurkeztuko du taldearen izen bereko diskoa, Elorrioko Han taldeak. Xabi Strubellen Zura taldeak ere joko du, bihar, Bonberenean, eta elorriarrak pozarren daude, lehenengo diskoa aurkeztuko dutelako alde batetik, eta oholtza Zura taldearekin partekatuko dutelako, bestetik. "Ohorea" da, Nerea Lersundi Han taldeko abeslariaren berbetan, oholtza horrelako musikariek partekatzea.

Laukotearen lehenengo diskoa da *Han*. Karlos Osinagaz Bonberenea estudioetan grabatu zuten, eta Osinaga arduratu da ekoizpenaz eta masterizazioaz ere. Bonberenea Ekinzako-en eskutik, KD eta LP formatuetan argitaratu dute. Urri hasieratik Elorrioko Parra, Portalekua eta Kukuma tabernetan, eta Durangoko Intxaurren dago diskoa eskuragai.

Karlos Osinagaz, Bonberenea estudioetan grabatu, ekoitzi eta masterizatu dute diskoa

Bederatzi kanta biltzen ditu Han taldearen lehenengo diskoak, eta duela bi urte sortutako taldearen ibilbide osoaren isla da. Emaitzagaz "oso pozik" dau-

Tolosako Bonberenean aurkeztuko du Han taldeak lehenengo diskoa, bihar

Taldearen ibilbidearen isla diren bederatzi abestik osatzen dute Elorrioko laukotearen lehenengo diskoa



Mokaua, Ama Say, Las Ratas, edo Yakuza taldeetan ibilitako musikariek sortu zuten, 2013an Han laukotea.

de taldekideak, eta "birari ekiteko irrikitan ere bai".

Biharkoaren ostean, urriaren 27an, Gasteizko Parral tabernan joko dute, eta azaroaren 28an, Elorrioko Arriolan ariko dira. Herrian izanik, eta kontzertua ez ezik ikuskizun berezia ere eskainiko dutelako, ez-ohikoa izango da Arriola-koa. *Han 2634* ikuskizunagaz

aurkeztuko dute disko berria Han taldekoek, Elorrioren. Geroa begira, Durangon eta Arra-

Azaroaren 28an, Elorrioko Arriolan ariko dira: 'Han 2634' izeneko ikuskizun berezia eskainiko dute

saten ere lotuta dituzte hainbat hitzordu.

Eskarmentu handiko musikariak dira 2013. urtean Han taldea sortu zuten Karlos Gomez, Gorka Molero, Migel Leon eta Nerea Lersundi. Lehenago, besteak beste, Ama Say, Las Ratas, Mokaua, Non Demontre, Antton, Yakuza, edo Tunnel 483 taldeetan ibilitakoak dira.



Diskoaren azala.

Domekan, 400 ume eta gazte dantzari elkartuko dira Durangon

Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek antolatu dute Umeen Euskal Jaia

> DANTZA I. E.

Urriaren 25erako antolatu dute Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek, Umeen Euskal Jaia. Jaialdi hori burutzen duten 49. aldian izango da aurtengoa, eta 400 ume eta gazte dantzari batuko ditu Durangoko kale eta plazetan. Durangoko

Tronperri eta Txoritxu Alai taldeko dantzariekin batera, Durangaldeko dozena erdi taldek ere parte hartuko dute emanaldietan: Berrizko Iremiñek eta San Lorentzok, Abadiñoeko Talde Batuak eta Iluntzek, Zornotzako Udabarririk, eta Ermuako Txindurrik. Gainera, Sestaoko

Salleko eta Legazpiko Korosti taldeak ere gonbidatu dituzte jaialdian parte hartzera.

Goizeko 11:30ean aterako den kalejiragaz hasiko dira domekako ekitaldiak, eta alardea egingo dute, 17:00etan, Ezkurdiko plazan (euria ari badu, Landako Gunean egingo dute).



Eskualdeko dozena erdi dantza talde gonbidatu dituzte Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai, domekako hitzordura.

Antzerkigintzako Zubi lehiaketaren III. deialdia

Azaroaren 16ra arte bidali daitezke proposamenak

> ANTZERKIA I. E.

Euskal antzerkigileei euren ideia eta proiektuak gauzatzen laguntzeko antolaturiko Zubi lehiaketaren hirugarren deialdia zabaldu dute. Azaroaren 16a baino lehen aurkeztu behar dituzte parte hartu gura duten sortzaileek euren proiektuak. Webgunean (www.zubi.eus) eskuragai dagoen formularioa bete, eta ehkozubi@gmail.com helbidera bidali beharko dute, euren ideien inguruko informazioa emanez.

Epaimahaiak aukeratzen duen proiektua gauzatzen laguntzeko, askotariko bitartekoak eskainiko dituzte Zubi lehiaketaren bultzatzaileek; laguntza ekonomikoagaz, sorkuntzarako espazioak eskainiaz edota partaide bakoitzaren premietara egokituriko aholkularitza tekniko zein artistikoagaz lagunduko diete sortzaile gazteei.

Durangoko San Agustin kultureguneak, Elorrioko Arriola

antzerkiak, Zornotza Aretoak, Kultur Leioak, Hameka Karrikako Arteen Fabrikak, Aulestiko Artedrama Topaketak, Baxe Nafarroako Herri Antzerkiak, eta Zumaiako Udalak babesten dute Zubi egitasmoa.

laz, Lauka konpainiaren 'Amodioaren ziega' antzezlan gauzatu zuten egitasmo honen laguntzaz

Antzerki sorkuntzaren lehiaketa honen aurreko bi edizioetako irabazleek antzezlan berri bana prestatu eta aurkeztu dute deialdi honi esker. 2013. urteko lehenengo deialdiaren emaitza Dxusturi Teatroa taldearen *Konpota* obra izan zen, eta, iaz, tartean Durangaldeko hiru aktore dauzkan Lauka konpainiaren *Amodioaren ziega* burutu zuten, Zubiren bultzadagaz.

Egoitz Murgotio (Abadiño, 1983) | Txirrindularia

“Konturatu naiz lagunekin disfrutatzen dudala benetan”

Murgotio txirrindularitzara bueltatzea erabaki du, baina kamioilari lanari uko egin barik



Egoitz Murgotio txirrindularia, ANBOTOren egoitzan.

> ZIKLO-KROSA M. O. Egoitz Murgotio eliteko ziklo-krosera bueltatuko da, bihar, Abadiñon jokatu den proban, Duranguesa-Eiser mailotagaz. Duela ia bi urte eskegi zuen bizikleta, askoren harriurarako; Munduko Kopan emaitza onak lortzen zebilen, baina motibazio falta zeukan. Lagunengan ikusten zuen bizimodu lasaia eduki gura zuen. Hain zuzen ere, adiskidetasunean topatu du txirrindularitzagaz disfrutatze bidea.

Motibazio faltagatik utzi zenuen eliteko txirrindularitza. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura ia urte bi pasa ostean? Beti ilusioa edukitzen nuen, kanpora joan, zirkuitu berriak ezagutu, eta onenen aurka lehiatzeko, baina orduan ez neukan hori. Denboraldi hura hasi baino lehen ere igartzen nuen ez neukala aurreko urteetako gogorik. Nahiz eta lehenengo lasterketarako emaitzak onak izan, nire egoera ez zen aldatzen, eta emaitza txarrak etortzean gaitzagoa izango zela uste nuen. Gero, erorikoa eduki nuen, eta saihestetan fisura egin nuen. Gauza asko batu ziren, eta horrek erre egin ninduen.

Sarri, badirudi kirolari profesionalek ez dutela eskubiderik motibazio falta edukitzeko... Ez dut esango nire bizimodua txarra zenik. Seguruenik, kirolari askoren ametsa izango litzateke. Momentu hartara arte, niri ere ilusioa sortzen zidan, zaparrotatik amestutako helmuga bat zen. Baina ondo kobratu eta lasterketarik onenak korritu arren, une batetik aurrera ez zidan merezi. Baliteke jendeak orduko nire bizimodua pribilegiatu lez ikustea, baina niretzat, nire ingurukoak ziren pribilegiatuak. Jende asko ikusten nuen niri begira, nire emaitzen esperoan, eta presionatuta sentitzen nintzen. Batzuek galdetzen zidaten ea zelan utziko ote nuen, eta barrutik pentsatzen nuen: “Bazeneki zugatik aldatuko nintzatekeela...”.

Eta orain, zerk motibatu zaitu? Azken egunetan berba asko egin da. Bueltatuko naizela esan dut, bai, baina egunero 9-10 ordu kamioiagaz lanean egoten naiz. Ez naiz bueltatuko lehengo moduan, ezta hurreratu ere. Bizikleta utzi nuenetik, ia-ia kirolik egin barik egon naiz. Baina, domeka batzuetan irtetea, konturatu naiz lagunekin disfruta-

tzen dudala benetan. Udaberri partean, Monegroetako [Aragoi, Espainia] martxa egiteko ideia okurritu zitzaigun lagun biri, eta ilusioa izan nuen. Hor ha-

“**Orain daukadan presio bakarra egunero 05:30ean jaikitzea da**”

si nintzen igartzen, bizikletan ibiltzea gustatzen zaidala, eta badagoela erdibide bat lehengo presioaren eta ezer ez egitearen artean. Hamargarren, hogei-tabigarren edo laugarren egin, lasterketak disfrutatze gura ditut.

Ez da erraza izango lana eta entrenamenduak bateratzea, ezta? Emaitzak lortu gura badituzu, lanetik irten eta gero prestatzea gaitza da. Baina, disfrutatze asmo horregaz joanda, ez. Bizikleta hartzeko benetako beharra daukadan egunak daude.

Biharko proban aurrean ibili ahalko zarela iragarri zuten antolatzaileek... Abuztuan hasi nintzen indartsu entrenatzen, eta orduan esango

balidate orain nagoen sasoiaren egongo nintzela, ez nuke sinistuko. Baina zirkuituan ez dut asko entrenatu, eta nik ere ez dakit zelan moldatuko naizen. Banaka batzuk baino ez dira egongo lasterketa irabazteko moduan, eta besteok atzetik. Gainera, punturik barik nagoenez, atzean irtengo naiz. Baina podiumera ez dut uste hurreratuko naizenik.

Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Larrinaga datoz txapelaren bila. Abadiñoko lasterketarentzat oso garrantzitsua da Hernandez eta Ruiz de Larrinaga etortzea, Espainiako Kopako txapelduna eta azpitxapelduna dira, momentuko onenak.

Etorkizuna ere presio barik planteatzen duzu? Orain daukadan presio bakarra egunero 05:30ean jaikitzea da [barrez]. Horrela da, ez daukat ezer pentsatua. Abadiñoko proban izango ditudan sentazioen arabera izango da gerokoa. Uste baino hobeto nagoela ikusten badut, hurrengo lasterketara animatuko naiz. Gero, neguan eguraldi txarra ere hasiko da, eta lanak utzitako astiaren arabera izango da. Espainiako Kopako probak, hasiera batean, ez ditut korrituko, baina Bizkaiako eta Euskadiko txapelketak bai. Hurrengo denboraldian ere korrituko dut seguruenik.

Eskolarteko umeez ere parte hartu ahalko dute biharko ziklo-krosean

10:00etan hasiko dira probak, mailaz maila, eta 13:00etan elitekoa

Abadiñoko probaren bigarren edizioa jokatu da, bihar, eta hainbat nobedade ekarriko ditu. Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Larrinaga ere etorriko dira, eta horrela, Estatu-

ko onenen arteko lehia ikusi ahalko da. Mailaz maila garrantzitsua da probak, eta 13:00etan hasiko da elitekoa. Abadiño Muntzaratz Txirrindulari Klubak antolatu

du proba, udalaren laguntzagaz. Joseba Gorostiza klubeko idazkariak aurkezpenean nabarmendu zuen eskolarteko umeez ere parte hartuko dute, 10:00etatik aurrera.



Probaren aurkezpena egin zuten, martitzenean, Joseba Gorostizak eta Eneko Etxebarria zinegotziak.

Ehunka argi txiki, Durangoko gau krosari distira emateko

Bihar, gau krosaren lehen aldia antolatuko dute; argiztapen berezia erabiliz, gauetz korrika egiteak duen berezko xarmari ikusgarritasuna gehituko diote



Durangalde Running-eko Dabid Garcia eta Jon Saiz arkupean, argiztapena probatzen.

> KORRIKA Joseba Derteano Durangalde Running taldeak Durangoko Gau Krosaren lehenengo aldia antolatuko du, bihar iluntzean. Lehia ikuskizun bihurtzen saiatuko dira, eta, horretan, zerikusi handia izango du argiztapenak.

Santa Anako arkupean hasiko dira lasterketak; 19:30ean, 16 urtetik beherakoak eta, 20:00etan, nagusienak. Helmuga ere bertan egongo da. Beraz, arku eta bere ingurua modu berezian argiztatu saiatuko dira, argi laserrak barne. Beste hainbeste egiten saiatuko dira Ezkurdi parkean, ibilbidea handik zehar diseinatu dutelako. Musikagaz eta ke-makinekin osatuko dute ikuskizuna.

Parte-hartzaileek —200 gehienez— argidun pultserak eramango dituzte, eta argiztapen bereziaren parte izango dira. Azken batean, “gauetz lehiatzeak duen xarma bereziari zerbait desberdina eta berezia eskaintzeko” baliatu gura dutela dio Dabid Garcia antolatzaileetako batek: “Lehia soil bat baino, jai-giroa

sortuko duen proba bat izatea gura dugu”.

Euskal Herrian, gaueko hainbat lasterketa daude, eta Garciak horietako hainbat irabazi ditu. Giro aldetik-eta, desberdina izaten dela dio: “Eguerdietan jendea begira egoten da, eta animatzea kosta egiten zaio. Iluntzeetan, po-teo orduan, jendeak gehiago animatzen du, eta igartzen da alde”. Durangon ere igarriko da. Orain urte bi, antzerako ezaugarriak zituen proba antolatu zuten. Biharkoa baino xumeagoa izan zen, baina potentziala bazuela ikusteko balio izan zien.

Durangaldean jende asko dabil korrika, badago zaletasuna, eta horien bilgune bihurtu gura du biharko probak. Horregatik, ibilbidea ez da gogorra. Bost kilometro ditu, eta parte-hartzea errazteko asmoagaz diseinatu dago. Santa Anatik abiatuta, Arte-kale, San Agustinalde, Ezkurdi eta Goienkale zeharkatuko dituzte, eta Santa Ana elizaren eta Pinondo parkearen atzetik bueltatuko dira. Zirkuitu horri hiru itzuli emango dizkiote nagusiek. 16 urtetik beherakoak Alde Zaharretik zehar ibiliko dira.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, Santa Anan. 15 euro da 16 urtetik gorakoentzat eta doakoa handik beherakoentzat.

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA
Saskibaloia



Egunean egunean lana!

Bai, jarraitu lanean! Horretan aritu behar da taldea. Egunean eguneko lanak ekarriko ditu emaitzak. Eta horretan ari dira gure eskualdeko talde guztiak.

Ametx Zornotza taldearen hasiera ez da ona izan. Hiru partidu jarraian galtzeak ez du taldearen nondik norakoa guztiz errazten eta argitzen. Nahiz eta lesioak eta aldaketak egon diren, nahiz eta Bilbao Basketen entrenamenduetan aritzen diren jokalariekin ehuneko ehuneko ezin izan den kontatu, taldearen hasiera beste era batekoa espero zen.

Jokalaria asko dira berriak, baina taldearen enborra, aurreko denboralditik dator landuta, eta horregatik, aurrera egiteko eta zulo txiki honetatik irteteko ezinbestekoa da beraien lana.

Horrela, hasiera honek erakutsitakoa kontuan hartuta eta landuta, hemendik aurrera, egindako lan onaren emaitzak agertu beharko dira, zeren eta garaipen batek taldeari indarra eta ziurtasuna emango dio.

Nik ez daukat zalantzarik, Ametx Zornotzak gora egingo du. Bai edo bai!

Bestalde, gure maila gorenetako beste taldeek emandako hasiera guztiz ona da. Tabirako Baquéko neskek bi garaipen eta porrot bat daramatzate, eta mutilek bi garaipen dituzte lehenengo bi partiduetan.

Liga hauek hasi berritan daude, eta oraindik denboraldia luze dator, aurrera begira. Oraindik gauza asko landu behar dira.

Dagigun!

Durangotik Urkiolara, maratoi erdi berria, etzi

Durango Kirol Taldeak antolatuta, Espainiako mendi lasterketen Kopako azken lasterketa da

> KORRIKA

Mendi lasterketen egutegian dagoen aukera zabalak hitzordu berri bat izango du aurtendik aurrera: Urkiola Udazken Koloretan proba. Durango Kirol Taldeak antolatuta, domeka goizean lehiatuko dute, Tabiratik abiatuta.

Lasterketa sortuberria den arren, pisu handia izango du Estatuko egutegian, eta Espainiako mendi lasterketen koparako puntuagarria izango da. Hain zuzen, domekakoa da kopako azkenengo proba. Gizonetan irabazlea erabakita dago: Enrique Meneses. Emakumeetan,

Gizonetan irabazlea erabakita dago, baina emakumeetan hainbatek dituzte aukerak

osterat, oraindik dena airean dago, eta Leticia Oterok, Ana Cristina Aguadok eta Mari Carmen Ledesmak irabazteko aukerak dituzte oraindik.

Parke naturaletik

Domekan, 10:30ean, hasiko da mendi lasterketa. 21 kilometroko ibilbidean, 900 metroko desnibel positiboari aurre egin beharko diote parte-hartzaileek. Tabiratik Atxartera joan, eta handik Asuntzera igoko dira. Ondoren, Urkiolamenditik Urkiolarako bidea egingo dute, eta Hiru Gurutzeetatik itzuliko dira Durangora. Beraz, mendi probak Urkiolako parke naturalako paisaia ederrekin gozatze-ko aukera ere eskainiko du.

Izen-ematea kirolprobak.com webgunearen bidez egin daiteke, barikua gauerdia arte. Espainiako federazioaren bidez ere eman daiteke izena.

Gorka Bizkarrak garaipen batez agurtu du denboraldia

> DUATLOIA

Gorka Bizkarra mañariarrak Urbasako duatloia irabazi zuen joan zen asteburuan. Iñaki Martinezek eta biek lehia gogorra mantendu zuten.

Denboraldiko azkenengo proba izan zuen. Aurten, lau garaipen lortu ditu Bizkarrak: Riazako ironman erdia, Urbasa eta Torrelavegako duatloiak

eta Senpereko triatloia. Horrez gainera, beste hamabi podium ere lortu ditu. Aurtengoa bere zortzigarren denboraldia izan du eta, batez ere, distantzia luzeko probetan errendimendua hobetu duela uste du.



GORKA BIZKARRA

Orain, atsedean hartuko du. Hurrengo hitzordua, abendua-ren 13an Gasteizen izango den maratoi erdia izango du.

Bidezabaleko harrobia Estatuko onenen artean

Gazteek 5. amaitu dute Espainiako txapelketa

> ATLETISMOA

Bidezabal Atletismo Taldeko neskek bosgarren tokia lortu dute gazte mailako Espainiako txapelketan. Horrela, aurreikuspenak apurtuz, iazko zortzigarren postua hobetu, eta Esta-

tu mailako talderik onenetakoa osatzen dutela erakutsi dute.

Talde osoak egindako lan onaren barruan, hainbat atleta nabarmendu ziren. Esaterako, Miren de Regil eta Leire Gorritxategi bigarren geratu ziren

pertika jauzian eta xabalina jaurtiketan. Nerea Anasagastik eta Terese Lujauk hirugarren amaitu zuten 800 metroan eta 100 metro hesietan. Hirugarren tokia eskuratu zuen Naia Lertxundik ere disko jaurtiketan.

Gazte mailetan Euskaditik Espainiako txapelketara talderen bat sailkatzea lortu duen klub bakarra ere izan da Bidezabal. Horrela, harrobiak lagunduta, talde nagusiak Ohorezko Mailara itzultzea izango du erronka hurrengo denboraldian.

Durangaldeko historia ikertuz



Bederatzigarren alea kalean dago. Gerediaga Elkarteak sustatuta, urtero argitaratzen den aldizkaria, aurten ere, mamitsu dator. Diseinu landu eta zainduan, argazkiak nabarmentzen dira. Lehenengo, begietatik erakartzen gaitu, baina, gero, kontakizunean harrapatzen gaitu. Durangaldea denboran atzera eginda zer izan den kontatzen digute argitaratzen diren ikerketek. Baina, egungo garaietako azterlanek ere badute lekua Astola ikerketa eta historia aldizkarian. 160 orritan biltzen diren argazki eta kontakizunek merezi dute arreta.

Durangaldeko ohiko liburudendetan izango da salgai, 5 eurotan. Durangoko Azokan ere eskuratu ahal izango da, ohikoa denez. Gerediaga Elkarteak ki-deek doako alea izango dute.



Gerediagak 50
Astola

Urtean zehar, mende erdia gogoratu eta ospatzeko izan diren jardueretako argazkiak, elkartearen historian zehar izan diren zazpi presidenteen garaiak laburtzen dituen erreportajea, eta egunerokoan Gerediagan behar egiten duten lau lagun berruokak ezagutuko ditugu.



Atxarte, borroka baten kronika
Jabi Berasaluze

Orain 25 urte, Atxarteko harrobietan hamakak haitzetako horman eskegita, askoren erretinan dagoen irudia izango da. Ekainean gogoratu zuten bi urte luzeko borroka "Atxarte Bizirik!" oihukatzen zuteneko batzuek. Urkiolaren Aldeko Batzordeko ki-deak gogorarazi dizkigu borroka horren zergatia, gertaerak eta lorpenak.



Automobilgintzaren motorra
Amaia Portugal

Automobilgintza sektorea Durangaldeko ekonomiaren motor nagusietako bat ote da? Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, egin duten ikerketa honetan argitzen du erantzuna. Datu estatistikoez harago, sektorean zeresana duten eragileen hausnarketak bildu dituzte.



Lorentzo Records, Rocka mimatuz
Iban Gorriti

Aitor Ariñok eta Marielen Deaneak Berrizko "Orue" baserrian grabazioetarako estudio profesionala jarri zutenetik, asko izan dira bertan euren diskoak grabatu dituzten talde eta abeslariak. Nortzuk izan diren, eta grabaketa egunak zelakoak izaten ziren kontatu digute erreportajearen.



Anbotoko Dama, Goiandere ala Deabru? Anuntxi Arana

Euskal mitologiako izaki ospetsuetako bat da Anbotoko Dama. Askok ikertu dute bere irudia, eta ikuspuntu ezberdinetatik. Anbotoko Dama batzuentzat, Anbotoko Mari besteentzat, izan diren eta oraindik irauten duten istorio, kondaira eta azalpenetatik ibilbidea egitea proposatzen du honako ikerketa lanak.



Tabira Uriaren jatorria
Belen Bengoetxea

Durangoko Uriari buruz gordetzen den dokumenturik zaharrena 1372. urtekoa da; uri moduan zituen pribilegioen baieztapen dokumentua. Zenbait autorek Durangoren sorreraz asko idatzi arren, hipotesiak izaten jarraitzen dute guztiek, oinarri arkeologiko nahikorik ez dutelako.



Elorrio, gerrako frontea
Jon Irazabal

Francoren altxamenduaren ondoren, 1936ko uztailaren 18an, Elorrio alde errepublikarrean geratu zen. 1937ko apirilaren 24ra bitartean, Elorrioko frontean gertatutakoak jasotzen dira erreportajearen, elorriar askoren erreferentziekin eta artxiboko argazki zaharrek azalduta.



Zaldibar, gizon gaizkilearen etxea
D. del Monte eta A. Santana

Zaldibar leinuetearen historia laburbiltzen dute kontakizunean. Zaldibar izenarekin dorrea, jauregia eta etxea izan dira ezagunak historian zehar. Zaldibar leinuaren joan-etorriak ezagutuko ditugu. Egun, hondatuta dagoen eraikina bada ere, eskualdean garrantzi handikoa izan zen.



Otxandioko plaza azpian
Iñaki Pereda

Plaza Nagusian egiten dabilzan indusketa arkeologikoak azaltzen dira lan honetan. Aurkitu dituzten elementu ugariak otxandiarrek denboran zehar egin duten lanaren eta eguneroko bizimoduaren lekukotza dira. Alde historikoko gune arkeologiko multzo monumental izendatua dago.

Iurretako-Elorrio, denboraldia sasoi onean hasi dutenen arteko derbia

Igoeraren borrokan ibiltzea helburu duen Iurretakok ez du golik jaso azken lau partiduetan

> FUTBOLA J.D.

Ohorezko Mailan dabilten Durangaldeko talde biek, Iurretakok eta Elorriok, indarrak neurtuko dituzte, domekan, 17:00etan, Larrakozelaian jokatuko duten derbian. Biek sasoi onean ekin diote denboraldiari, eta sailkapeneko goialdean kokatuta daude.

Iurretako bosgarren dago, Sodupe liderrarengandik puntu batera. Iaz suzirik behetik gora hartzen duten abiada berdinean amaitu zuten denboraldia, eta azken 12 partiduetatik 10 irabazi eta bi berdindu zituzten. Aurten, hasierako jardunaldietan behinik behin, inertzia horri eustea lortu dute. Iurretakoren aurtengo helburuak "onenen artean aritzea eta Hirugarren Mailarako igoera bilatzen ahalegintzea" dira Jon Gurutz Vazquez entrenatzailearen esanetan.

Bost partidutik lautan atea hutsean mantendu dute, talde sendoa dela erakutsiz. Hala ere, Vazquezen iritzian, ez dira talde defentsiboa: "Ez gara atzean sartzen, eta talde alaia garelako esango nuke. Atzean ondo antolatuta, aurrean badugu bolbora".

Taldeko hamabost jokalaririk berriak dira. Jokalari berrien artean, Unai Oiarbide eta

Josu Garai Elgoibarretik etorri dira, Lander Bereziartua Amorebietatik, Mikel Aperribai Durangoko Kulturaletik, Borja Carrero Zalduatik eta Ander Rementeria eta Iker Lopez Eibarretik.

Elorrio, alternatibak jokoan Elorrio seigarren dago. Aitor Azpitartek bigarren denboraldia du Elorrioren aulkian. Taldeak eraso jokoa aberastu zezan, iaz hasitako biderei jarraipena eman gura dio aurten. Futboleant eta, batez ere, maila hauetan, jokalariek buruan ideia nagusi bat izaten dute Azpitarteren ustez: "Atea hutsean mantentzea. Baina partiduak irabazteko, golak egin behar dira". Horretarako, baloi zuzenaz gainera, erasorako beste jokamolde batzuk barneratzeko lan egiten dute: "Ez dut jokatzeko modua erabak aldatzea bilatzen. Erasoan alternatibak izatea da helburua".

Sei jokalaririk berriak dituzte: Asier Negugogor eta Gorka Iglesias Abadiñotik etorri dira, Asier Iturrieta eta Adrian Petralanda Iurretakotik, Beñat Arruabarrena Kulturaletik eta Cristian Cedeño Zalduatik. Mikel Orbegozo Elorrioko bigarren taldeko jokalaria da.



Iurretakoren aurtengo taldea.



Elorrioren aurtengo taldea.

Ariznabarreta, Fontaneda eta Mugartegi DKTren sarituak

> SARIKETA

Durango Kirol Taldeak taldeko hiru kirolari saritu ditu denboraldia agurtzeko egindako ekitaldian. Javier Fontaneda, bestek beste, munduko txapelketa irabazi du 10.000 metroan. Oier Ariznabarretari Bizkaiko kros txapelketan zein Espainiako Mendi Lasterketetan egindako lana aintzatetsi gura izan diote. Ainara Mugartegi 300 metro hesietan Espainiako txapelketako finalera heldu da kadete mailan.



DKTko hiru sarituak.

Tarsicio, mendi igoeren Euskadiko txapeldun

Asteburu bi barru, Euskadiko Rallysprint txapelketa ere irabazi dezake, Karrantzan

> MENDI LASTERKETA

Iban Tarsicio pilotu abadiñarra denboraldi gogoangarria osatzen ari da. Bere ibilbidean, lehenengoz, Euskadiko mendi igoeren txapelketa irabazi du, eta beste garaipen handi baten atarian dago: Euskadiko Rallysprint txapelketako liderra da azken probaren faltan.

Horrela, mendi igoeretakoko garaipenagaz "oso pozik" dagoen arren, ez du poza barneratzeko denborarik hartu, rallysprinteko hitzorduan zentratirik dagoelako: "Hori ere irabazteko ilusio handiz nago".

Rallysprint txapelketako azken proba urriaren 31n izango da, Karrantzan. Lider dago,



Iban Tarsicio pilotu abadiñarra eskuman, eta Iñigo Peña atxondarra, ezkerrean.

eta hiru puntura du Aingeru Castro, eta hamaikara Enrike Barrenetxea. Hiruak dituzte aukerak txapelketa irabazteko.

Karrantzakoa ez da bere dohainetara egokitzen den zirkuitua: "Ibilbide arina da, errepide zabalekin. Ni askoz hobeto moldatzen naiz errepide estu, zikin eta labankorretan". Edozelan ere, Iñigo Peña kopilotu atxondorak eta biek garaipena dute buruan.

Mendi igoeretan erregularitasunak eman dio azken garaipena. Lasterketa bat irabazi du, txapelketari hasiera ematen zion Opakuakoa, eta gainerako ia denetan podiumean izan da.

Txapelketa bietan Mitsubishi EVO IX bat gidatu du, eta eskaintako errendimendua zein fidagarritasunagaz gustura dago.

'Olabe' bigarren

Mendi igoeren txapelketan bigarren sailkatu dena ere eskualdekoa da: Iñigo Olabegoaskoetxea atxondarra. Joan zen asteburuan txapelketako azkenengo proba irabazi zuen, Urrakin.

> AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Sestao
· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Elorrio
· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Zaldia - San Ignacio
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Zorrotzako - Plentzia
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

BIGARREN ERREGIONALA

Berriz - Padura B
· Zapatuan, 17:30etan, Berrizburun.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Ezkurdi - Derio
· Domekan, 12:00etan, Tabiran.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Lagun Onak
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

EUSKAL LIGA

Mallabia Seguros Altaldi - Elorrioko Buskantza B
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

MAILA GORENA

Abadiñoko Gaztetxe-Ibarreko
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienan.

LEHEN ERREGIONALA

Gu Lagunak - Betiortziri
· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

Presion Break B - Ituriondo

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

> SASKIBALOA

ZILARREZKO LIGA

Zornotza - Granada
· Zapatuan, 18:30etan, Larrean.

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Portugalete
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Anbotopeko - Txiki
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Unkinako
· Domekan, 10:00etan, Ixerbekoan.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Nissan Gaurisa - Valladolid
· Zapatuan, 17:30etan, Arripausuetan.

> PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau terdian:

- Aranguren - Alberdi

Binaka:

- Elezkano-Etxebarria / Arrieta-Aizpitarte

· Urriak 29, 21:30, Zaldibarren.



E P O C A

**ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK
ALTZARIAK - DEKORAZIOA**

Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu



Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 **DURANGO** Bizkaia

www.epocasukaldeak.com

jarrai gaitzazu Facebook-en!

 epoca.goro

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
20600 **EIBAR**
Gipuzkoa



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuzko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ARANDOÑO TORRE 112m2 / GUZTIZ BERRIZTATUA



- 4 logela, egongela, sujalde jantzia eta 2 komun. Garajea. Handia eta eguzkitsua. **310.000€.**

ERMODO 90m2



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eskegitokiarekin eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. **268.000€.**

F.J. DE ZUMARRAGA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi. Ganbara. **225.000€.**

ABADIÑO



- 2 logela (lehen 3), egongela, sukalde-jangela, eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. BIZITZEN SARTZEKO MODUAN. Kalitatezko detaileak. **210.000€.**

BERRIZ



- 3 logela, 27m2-ko egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **240.000€.**

MAÑARIA



- 3 logela horma-armairuekin, egongela tximiniarekin, sukalde estreinatuzko eta 2 komun. 24m2-ko garaje itxia. Ganbara. **255.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETXENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

AUKERA

- ERMODO. 100m2. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Terraza. Ganbara eta garajea. 268.000€.
- F.J. ZUMARRAGA. 93m2. 4 logela, komuna eta egongela. Igogailua. 105.000€.
- IBAIZABAL. Apartamentua. Logela 1. Trastelekua eta garajea. 180.000€.
- MADALENA: 3 logela, komuna, sukaldea eta despentsa. Igogailua. Eguzkitsua. 130.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Igogailua. Berriztatua. Eguzkitsua. 140.000€.
- SASIKOA. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Ganbara. Garaje itxia. 195.000€.
- ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela, 2 komun, eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Etxe osoa kanpora begira. EGUZKITSUA. 260.000€.
- MURUETTORRE: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Ganbara eta Garajea. 280.000€.
- ABADIÑO: Zelaieta. Erdi berria. 2 logela. Trastelekua eta garajea. 185.000€.
- F.J. de ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela eta egongela handia. Terraza. 186.000€.
- FKO. IBARRA: 100 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. 240.000€.
- ATXONDO. Etxabea lorategiarekin, 100 m2. 2 logela eta egongela. Ganbara. 210.000€.
- IPARRAGUIRRE: 98 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garaje itxia. 271.000€.
- ZABALE: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Ganbara eta garajea. 255.000€.
- BERRIZ: 110 m2. Erdi berria. 3 logela, 2 komun eta egongela. Garajea aukeran. 180.000€.
- BARRENKALE: 3 logela, egongela eta sukaldea. Berriztatua. 93.000€.
- ABADIÑO: Erdi berria. 2 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea. AUKERA.
- S. INAZIO: 3 logela, 2 komun, egongela terrazarekin, sukaldea eta eskegitokia. Ganbara eta garajea. EGUZKITSUA. 246.000€.
- ZUMALAKARREGI: 65 m2. Bulegoetarako egokia. 180.000€.
- TABIRA: Duplexa. 2 logela, 2 komun (komun nagusia hidromasajearrekin), egongela, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua. Garaje itxia.
- S. INAZIO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua eta garajea. 239.500€.
- ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, komuna eta sukalde handia. Berogailua eta igogailua. 175.000€.
- SASIKOA: 3 logela, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Ganbara eta garaje itxia (aukeran). 206.000€.
- SAN FRANZISKO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Terraza. 179.000€.
- MONTEBIDEO: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua. 150.000€ (Negoziazgarria)

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- DURANGO: 160 m2. Gaur egun okindegia da. 220.000€ (lokala bakarrik hartzeko aukera)
- TXIBITENA: 51 m2. Egokitua. 415€.
- MURUETA TORRE. 60 m2. Egokitua. 85.000€.
- MONTEBIDEO: 45 m2. 47 m2-ko biltegiarekin. Egokitua. 600€.
- J.M. ALTUNA: 50 m2. Komertziala. 500€.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU. www.inmoetxetxo.com

anboto.iragarki**laburrak**.com

AFEL Nº 1473
INMOBILIARIA
ETXELAN
NIZETO URKIZU, 12 BEHEA - ELORRIO
946 550 358 - info@inmobiliariaetxelan.com
www.inmobiliariaetxelan.com

SALGAI

- ELORRIO**
REF.499 . 70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, sukalde amerikarra. 155.000€.
TABERNA BI SALGAI. KONTSULTATU.
REF. 579. 200 m2-ko etxea eta 1.700 m2 inguruko lursaila. 390.600€.
REF.582. 76 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 93.300€.
REF. 472. 65 m2-ko PISU BERRIA, logela 2, bainugela 2, sukalde amerikarra. 132.000€.
REF. 547. 50 m2-ko apartamentua, logela 1 eta bainugela. 154.500€.
REF.474. Pisua. 95 m2. 3 logela. Bainugela 2. Garajea
Lokalak, dimentsioak: 250 m2, 170 m2, 140 m2, 121 m2, 101 m2, 62,5 m2 eta 105 m2.
REF. 473. 65 m2-ko PISU BERRIA, 2 logela, bainugela 2, sukalde amerikarra. 161.000€.
REF. 407. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. Garaje itxia barne. 148.600€.
REF.550. 95 m2-ko pisua, 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. 185.300€.
REF. 565.- 75 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 125.000€.
REF. 568.- 115 m2-ko pisua, 4 logela, 2 bainugela. 40 m2-ko trastelekua 155.000€.
Lursailak: Unifamiliarra eraikitzeko eta bifamiliarra eraikitzeko. 230.000€ / 330.000€.
BI LOGELAKO ETXEBIZITZA. 60.000€.
70 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukalde. 40 m2-ko trastelekua. 84.000€.
- ATXONDO**
REF.495. Pisua. 95 m2. 3 logela, 2 bainugela, sukalde, egongela eta terraza. Garaje itxia (prezioan ez dago barne) 200.000€.
REF.469. Adosatua. 200 m2. 5 logela, 4 bainugela, egongela-sukalde, terraza-lorategia. 2 garaje. Kontsultatu.
Ref.428. Baserria. 383 m2, 3 logela, bainugela, egongela-sukalde. Lursaila. 385.000€.
Ref.427. Baserria. 900 m2, 9 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde. Lursaila. Kontsultatu.
Ref.333. Pisua. 75 m2, 3 logela, bainugela, egongela, sukalde. 180.000€.
- ABADIÑO**
Txaleta, 4 gela, 2 bainugela, sukalde, egongela. Berri-berri dago. 570.000€.
Ref.372. 83 m2-ko pisua, 3 gela, 2 bainugela, egongela eta sukalde. 246.000€.
Ref.325. Pisua, 90 m2, 3 gela, bainugela 2, sukalde eta egongela. 105.000€.
- BERRIZ**
Ref. 393. Pisua, 80 m2, logela 2, bainugela, egongela, sukalde, balkoia. 162.000€.
60 m2-ko pisua, 2 logela, bainugela, egongela, sukalde. 126.000€.
Ref. 401. Pisu ia berria. 65 m2, 2 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 204.000€.
Lursailak: 4 lursail salgai, eraikitzeko aukerarekin.
REF. 540.- TXALET BERRIA 1.200 m2-KO LURSAILEAN ERAIKIA. 600.000.
Ref.373. 68 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, egongela, sukalde. Aukera paregabea.
- ZALDIBAR**
Ref. 378. 90 m2-ko pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde eta egongela. 158.000€.
Ref. 391. Pisua, 70 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 125.000€.
Ref. 392. Pisua, 75 m2, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela. 150.000€.
REF. 570. Pisua, 3 logela, bainugela 1, sukalde, egongela eta garajea. 159.000€.

Sartu gure webgunean
www.inmobiliariaetxelan.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukalde, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Pisukide bila. Pisukide bila gabiltza Durango, Tabira ondoan dagoen pisu baterako. Tel.: 652-73 00 93.

LOKALAK

SALDU

Ermua. Ermuan lokal bat saltzen da San Pelayon. 55 m2. Tel.: 605-73 41 80.

GAJAJE / TRASTEROAK

SALDU

Durango. Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 m2 eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

GAINERAKOAK

Gela bila nahil. Gela bila nahil. Tel.: 631-11-16-95

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Lan bila nabil sukaldari-laguntzaile edo plater garbitzaile moduan. Pertsona nagusiak ere zaintzen ditut. Tel.: 632-49 11 30.

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 610-80 42 82.

Durangaldea. Emakume arduraduna lan bila dabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Tel.: 635-74 59 02.

Durangaldea. Ingeniari euskalduna klase partikularrik emateko prest LH, DBH eta batxilergoko ikasleei. Tel.: 645-64 11 51.

Durangaldea. Emakume bat lan bila nagusiak zaintzeko. Tel.: 610-80 42 82.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Goizez zein arratsaldez. Etxea garbitu. Tel.: 650-57 51 27.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Goizez zein arratsaldez. Etxea garbitu. Tel.: 676-93 99 90.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 678-34 06 49.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 663-51 37 21.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langile moduan. Paperekin. Tel.: 697-31 33 58.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Esperientziaduna. Tel.: 602-81 87 82.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 603-57 22 57.

Durangaldea. Dementia edo alzheimer gaixotasunentzako psikoestimulazio kognitiboa eskaintzen da. Laguntza psikologikoa zaintzaileei edota familiakoei. Psikologo euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 679-38 23 69.

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziaduna eta paperekin lan bila barruko langile moduan. Tel.: 602-19 27 69.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbitasunean ere jarduten ditut. Tel.: 691-06 21 19.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaindu, eta garbiketan jarduten ditut. Lanaldi osoan edo orduka. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 632-46 01 09.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 610-80 42 82.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-73 19 46.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak

zaintzen. Tel.: 611-34 12 90.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten ditut. Tel.: 628-00 22 17.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten ditut. Tel.: 602-01 24 53.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lanaldi osoa zein orduka. Tel.: 690-68 73 95.

Durangaldea. Lan bila umeak edo nagusiak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-23 14 29.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Barruko langile moduan lan egiteko izango litzateke. Erreferentzia onak dauzkat. Tel.: 632-98 97 87.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

Durangaldea. Neska euskalduna, giza nutrizio eta dietetika ikasketaduna, Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrik emateko prest. Tel.: 685-72 59 36.

Durangaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrik banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662 364 167 // 946 813 940.

Durangaldea. Biokimikako ikaslea eskola partikularrik emateko zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 688-65 06 46.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Lorezaintzan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Tel.: 631-11 16 95.

Durangaldea. Bikote bat lan bila dabil pertsona nagusiak zaindu edo baserriko lana egiteko. Tel.: 631-61 96 76 / 611-34 12 90.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Berriz. Lan honetarako kotxea behar da (baserri bat da). 15 orduko lana hasieran, eta gero, lanaldi laburreko kontratua, 24 orduko gutxigorabehera. Tel.: 635-75 49 62.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. 2. Batxilergoko neska euskalduna naiz, eta ingelesa erakutsiko didan norbait bilatzen nabil, maila ona beharrezkoa. Tel.: 94-621 82 57.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Oiz hortz-klinikak harrera-lekurako pertsona bat behar du. Administratibo profila. Odontologia arloan esperientzia izatea beharrezkoa da. CurriCuluma email honetara bidali, info@clinicadentaloiz.com.

GAINERAKOAK

Durangaldea. 2. Batxilergoko neska euskalduna naiz, eta ingelesa erakutsiko didan norbait bilatzen nabil, maila ona beharrezkoa. Interesdunak deitu: 946-21 82 57 telefonora.

Denetarik

SALDU / EROSI

Txakurkumeak salgai.

Txakurkumeak salgai. Spanier breton arrazakoak. 110 euro. Tel.: 690-81 65 44.

ERRENTAN

Autokarabanak - karabanak gordetzeko. Autokarabanak karabanak gordetzen ditugu Elorri, herrian bertan (ez dago aterperik), prezio onean. Tel.: 656-77 93 29.

Aisia - kirola

KIROLAK

SALDU

Umeen bizikleta bat salgai. Umen bizikleta bat salgai (14') orbea marka. 30 euro. Tel.: 679-68 29 74.

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Bikientzako kapazuen zaku bi salgai. Bikientzako kapazuen zaku bi salgai. Cyti mini markakoak. Tel.: 635-00 62 63.

Urme-kotxea eta osagarriak.

Honako hauek salgai ditut: Casual-play ume-kotxea (kapazua eta aulkia); kotxean erabiltzeko haurrentzako aulkia (0-18 kg); McClaren aulkia; lehen hilabeteetan erabiltzeko haur parkea. Prezio interesgarria. Tel.: 665-70 75 35.

GAINERAKOAK

EMAN

Txakurkumeak oparitzen dira. Berrizen txakurkumeak oparitzen dira. Kolore ezberdinetakoak eta oso politak. Interesatuok deitu edo mezua bidali, mesedez. Tel.: 664-81 81 70.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 24an, 22:00etan,
Mallabiko jaietan

Reincidentes

Lehenengo diskoa 1989. urtean kaleratu zuen Reincidentes Sevillako taldea ariko da, Mallabiko jaietan, bihar. Aldaluziarren aurretik, PAM (Puto Amoak Matematiketan) Ermuako taldea ariko da Mallabiko plazan, eta DJ Bull-ek ipiniko du erritmoa, gaua dantzan amaitzeko.

Antzerkia

:: BERRIZ

URRIAREN 23an

18:00etan, 'Barbantxo', Kultur Etxean.

:: ELORRIO

URRIAREN 23an

22:00etan, 'Erdibana', Arriolan.

URRIAREN 30ean

22:00etan, 'Not Ever On Time', Arriolan.

Berbaldia

:: DURANGO

URRIAREN 28an

19:00etan, 'Aitaren Etxea. El caserío como fuente primaria de la historia vasca', Arte eta Historia Museoan.

Musika

:: BERRIZ

URRIAREN 24an

19:00etan, Juan Carlos Irizarren 'We are like you' ekimena, Kultur Etxean.

:: DURANGO

URRIAREN 25ean

18:00etan, Kantaldia, Plateruenean.

URRIAREN 30ean

21:00etan, EH Eztanda, Plateruenean.

URRIAREN 31n

21:00etan, EH Eztanda, Plateruenean.

:: ELORRIO

URRIAREN 24an

22:00etan, Su Ta Gar, Gaztetxean.

Urteurrena

:: DURANGO

URRIAREN 29an

19:30ean, Plateruena kafe antzokiaren XI. urteurren ospakizuna, Plateruenean.

Dantza

:: ZORNOTZA

URRIAREN 23an

21:00etan, 'Divenire', Zornotza Aretoan.

Zinema

:: BERRIZ

AZAROAREN 23an (22:00etan) eta 25ean (19:00etan)

'Una semana en Córcega', Kultur Etxean.

20:00etan, 'Gabrielle' dokumentala, Kultur Etxean.

Kontalaria

:: IURRETA

URRIAREN 23an

17:00etan, Amilami (Pantzar), hiru urtetik gorakoentzako 'Ipuin musikatua', Bibliotekan.

URRIAREN 30ean

20:00etan, Yoshi Hioki japoniarraren 'La flor que palpita' helduentzako saioa, Bibliotekan.

Jaiak

:: MALLABIA

URRIAREN 23an

16:30ean, Umeentzako tailerrak, eskolan. Ondoren, buruhandiak.

18:30ean, txupinazoa.

19:00etan, Elizpeko pilota finala.

20:00etan, oilasko pintxoak, plazan. Ondoren, bertso poteoa Beñat Ugartexea eta Odei Barrosogaz.

22:00etan, Basajaun taldeagaz erromeria, plazan.

URRIAREN 24an

11:00etan, futbito txikia, eskolan. Mallabia-Zaldibar.

13:00etan, erreskaterako txakurren erakustaldia, parkean.

16:00etan, nesken frontenisa (bikoteka).

19:00etan, Pepa eta Kutxo pailazoak, Kontzejuzarrean.

22:00etan, PAM + Hesian + Reincidentes + DJ Bull, parkean.

URRIAREN 25ean

12:00etan, Gaztetxoan arteko pilota partidak, herriko frontoian.

16:15ean, areto-futbola, Zaldibarren.

17:00etan, Txan magoa, Kontzejuzarrean.

18:00etan, Euskal Liga, Zaldibarren. Mallabia-Zaldibar.

18:30ean, txokolatada, plazan.

Bertsoak

:: ERMUA

URRIAREN 30ean

10:15ean, bertso jaialdia, Ermua Antzokian: Oihana Bartra, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Felipe Zelaieta, Uxue Alberdi eta Jon Maia.

Ondarearen jardunaldiak

:: BERRIZ

URRIAREN 25ean

10:30ean, gaztelaniaz, eta **11:00etan**, euskaraz, 'Arrierreka, ibai baten energia', Ereña jatetxeko aparkalekutik irtenda.

:: ELORRIO

URRIAREN 30ean

19:00etan, Jesus Muñiz Petralandaren 'Burdinazko zimenduak dituen ondarea' berbaldia, kultur etxean.

:: GARAI

URRIAREN 24an eta 25ean

11:00etatik 14:00etara, eta **14:00etatik 17:00etara**, 'Burdina eta lanabesak' erakusketa.


* Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 telefonoan eta 'ejardunaldiak@gmail.com'.

Erakusketa

:: BERRIZ

AZAROAREN 1era arte

Jose Alonso García Antonen margolanak, Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Mi gran noche

- barikua 23: 19:30/22:00
- zapatua 24: 19:30/22:30
- domeka 25: 19:00/21:00
- astelehena 26: 18:30/21:00
- martitzena 27: 20:00

Pan. Sekula Betirako bidaiak

- zapatua 24: 17:00
- domeka 25: 16:30

2. ARETOA

Amama (euskaraz)

- barikua 23: 19:30
- zapatua 24: 22:30
- domeka 25: 21:00
- astelehena 26: 18:30
- martitzena 27: 20:00

Amama (gaztelaniaz)

- barikua 23: 22:00
- zapatua 24: 19:00
- domeka 25: 16:30
- astelehena 26: 21:00

Mi gran noche

- zapatua 24: 17:00
- domeka 25: 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

Les combattants

- zapatua 24: 22:00
- domeka 25: 20:00
- astelehena 26: 20:00

Los Minions

- zapatua 25: 17:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Un otoño sin Berlín

- zapatua 24: 17:00/19:30/22:00
- domeka 25: 20:00
- astelehena 26: 20:00

Agua tranquilas

- martitzena 27: 20:00

Urriaren 23an, 21:00etan, Zornotza Aretoan

Divenire

Circle Of Trust Zaragozako dantzari taldearen eta Elorrioko Logela taldearen elkarlanetik sortutako ikuskizuna da 'Divenire'. Aurretik, 'Klonk' eta 'Papiro...flexia' izenburuko lanak sortu zituzten bi talde hauek, eta break dance, hip hop eta multimedia uztartzen duen 'Divenire' dute hirugarren proposamena. Sei dantzarik dihardute oholtzan, eta 55 minutukoa da ikuskizuna. Gaur, 21:00etan hasita, Zornotza Aretoan eskainiko dute.



> ZORION AGURRAK✉ zorionak@anboto.org
eguaztenezko 14:00ak arteko epea

> Zorionak, **Jokin!** Etxeko mutil haundiak urriaren 23an hamar urte beteko dauz. Edarto pasau zure eguna eta mosu erraldoi bat, Ibairen eta amaren partez.



> Gure futbolariak sei urte bete dauz urriaren 21ean. Zorionak, **Ibai!** Primeran pasau zure lagunekin. Mosu pilo bat Jokinen eta amaren partez.



> **Jokinek** 13 urte beteko dauz urriaren 26an. Parrandatxo bategaz ospatuko dogu? Zorionak eta muxu handi handi bat amama, osaba, izeko eta Lurren partez!



> Gure etxeko sorgintxu bixek 3 urte eiten dabez, zelako bizkor pasau dien ... jarraitu gure egunek alaitzen! Muaaaa



> Aurreko domekan, urriaren 18an, **Landerrek** 8 urte bete abezan. Zorionak danon partez!



> Zorionik beroenak Matienatik, **Oroit!** Prestatu cava eta pastela ospatzeko!



> Urriaren 23an **Magalik** 3 urte eta urriaren 26an **Malenek** 6 urte beteko dabez. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partez.



> Urriaren 17an **Saioa Arrasatek** 15 urte egin zituen eta **Ander Arrasatek** urriaren 21ean 13. ZORIONAK, bikote! Axpetik eta Lekitxotik!



> Zorionak, **Gorka** eta **Mikel Latorre Lasuen**, zuen 10. eta 6. urtebetetzean. Muxu haundi bat Markelen partez!



> Aupa Mañariko dantzariak! Domekan Mañarin ospatu zan Euskal Jaia aprobetxatuz, argazki hau atara gendun gure irakasle izan ziren M^a Luz eta Begoñarekin; eta Igonek diño orain Ezpatadantza ikastea gelditzen jakula, beraz.....



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozategia

Zorionak, **Tere Jesus Bilbao!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 23
09:00-09:00

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 24
09:00-09:00

Navarro
Artekale 6 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

De Diego
Intxaurren 22 - Durango

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Jaio-Olabarrieta
Errekakale 6 - Elorrio

Larrañaga-Balentiaga
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 25
09:00-09:00

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 26
09:00-09:00

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 27
09:00-09:00

De Diego
Intxaurren 22 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 28
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 29
09:00-09:00

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> EGURALDIA

ZAPATUA 12° 21°

DOMEKA 11° 18°

ASTELEHENA 12° 23°

MARTITZENA 10° 19°

ARGAZKI

lehiaketa
2016

anboto

Zorionak Lehior Elorriaga!
ANBOTOk antolatzen duen 2016ko Durangaldeko egutegiaren argazki lehiaketa Lehior Elorriaga zaldibartarrak irabazi du. Azaroaren erdialdean egutegia salgai izango duzue ohiko lekuetan.

2016

Durangaldeko egutegia

“Oraintxe igotzen da zaletasuna, onddoen agerraldiagaz”

Zornotzako Mikologia Elkarteak antolatuta, 25. Mikologia Jardunaldiak izango dituzte, asteburuan

> AKUILUA Aitziber Basauri Perretxiko eta onddoak eza-gutu eta dastatzeko aukera eskainiko dute Zornotzan, domekan. Perretxiko eta argazki erakusketa ez eze, perretxikoen pintxo dastaketa ere izango dute 25. Mikologia Jardunaldien barruan.

Nola doa perretxiko denboraldia?

Aurten elegante! Eguraldia ere halakoa iragarri dute: jaka gutxi eta aterki asko. Beraz, elegante, udazkena luzea izango da, gainera.

Noiz hasten da?

Eguraldiaren araberakoa da. Egunaren argi orduak, hezetasuna eta tenperatura dira aintzat hartzekoak.

Onddoak aurkitu ahal izateko, bat egin behar dute...

Onddoak batzeko, hamar graduren bueltan ibili behar dugu, eta, hemen tenperatura hori ez badugu, alturara jo beharko, hori lortu arte.

Hego-haizeak eta ilargiak ere badute eraginik, ezta?

Ilbeheran eta ilgoran berdin berdin hartu ditut nik “broteak”; hezetasuna eta tenperatura dira garrantzitsuak. Hego-haizea, berriz, ez da seinale ona, sikatu egiten du eta. Orena, Galiziatik datorren haizea, harek hezetasuna dakar.

Hemen inguruan ibiltzen zara zu onddoak batzen?

Pisua daukat Espinosan (Bur-



gos) eta han ibiltzen naiz gehiago. Asteburu joaten naiz, besterik ezean bakarrik! 17 urteko alabak ez dauka zaletasunik eta emaztea geratzen da, batzuetan.

Perretxikozale gehienek dute euron txokoa...

Bai, neure mendia daukat.

Isilean gordetzen duzun horietakoa zara?

Ez. Aurreko astean joan ginen pare bat lagunartean. Perretxiko edo zizak batzera doazenek gordetzen dute isilean, gehiago. Hara bertara zoaz, eta sekretuagoak dira toki horiek.

Onddoak ala perretxikoak, zeintzuk dituzu gurago?

Gurago ditut onddoak. Perretxikoak udaberrikoak dira, batez ere, eta, udazkenean, denetarik urtetzen du. Aurten, Belatxikieta partean, onddo piloa batu da. Askotariko perretxikoak daude, eta urte osoan egon daitezke. Onddoak, baina, udaberri eta udazkenean: egunaren argi orduak, hezetasunak eta tenperaturak dute eragina.

Onddoa preziatuagoa da?

Otzarak beteta hartzen dira; perretxikoak ez hainbeste...

Asko daudelako?

Bai, eta itxura hobea dutelako. Jendeak gustukoago ditu. Jateko ere bai; era askotara prestatu daitezke.

Batzera joatea bezain gustuko duzu jatea?

Nik neuk, ez dut batzen

dudan beste jaten. Etxerako gordetzen ditut batzuk, eta, beste asko eta asko, auzoan eta familian banatzen ditut.

Itxuraz deigarrienak eta politenak dira kaltegarrienak? Zerregaz ibili behar da kontuz?

Toxikorik topatzeko moduan, asko ez dago; zaila da, baina beti agertzen dira. Jakin egin behar da, ezagutu. Batutako perretxikoak ezagutzen ez dituenak, badu aukera guri galdetzeko. Astelehenetan batzen gara.

Zornotzako mikologia elkarteak 25 urte bete ditu. Zaletasuna gehitu da?

Oraintxe igotzen da zaletasuna, onddoen agerraldiagaz. Urtean zehar ez dago horrelakorik.

Etzi, perretxiko eta argazki erakusketa izango dira.

Hala da, bai. Gainera, perretxikoen artean, antzerako izenak ipinita, mendian topatutako zaborrak jartzen ditugu: latak, botilak, kartutxoak, plastikoak... protesta moduan egingo dugu.

Sorian perretxiko eta onddo denak hartu dituzte...

Mafiak sortu dira. Baina, nork du errua? Mafiek ala erosten dutenek? Zelan kontrolatu hori? Gaur 800 kilo atzeman, eta, bihar, berriro lanean daude.

Zer esango zenioke, asteburuan perretxiko bila doanari?

Ez ditzala ez txikiak ezta zaharrenak ere hartu. Otzara eta labana garbituta, basokoa dena basoan uzteko. Ez dadila igarri berton izan garela.

LAUHORTZA

GOTZONE BARANDIKA

EHUko irakaslea



Nobel Sariaren atzetik

Aurtengo Kimikako Nobel sariak DNAREN inguruan egindako ikerketak saritu ditu. Izan ere, saritutako ikertzaileek egiaztatu dute zelulek molekula mailan konpontzen dutela kalte-tutako DNA. Horrela, bizirik dauden zelulen funtzionamendua azaldu dute, eta beraz, minbiziaren kontrako tratamenduetan erabil daitezke aurkikuntza zientifiko berriak. Hots, DNARI egunero eragiten diote irradiazioak, erradikal libreek eta minbizi eragiten duten beste substantzia batzuek, baina kanpo eragin horiek gabe ere, DNA molekulak ez dira egonkorak. Alegia, zelulak zatitzen direnean, DNA kopiatzen da, eta prozesu horretan ere sor daitezke akatsak. DNAREN erreplikazioa milioika aldiz gertatzen da egunero gizakien gorputzean, eta zeluletan etengabe kontrolatzen eta konpontzen da prozesu hori, gure material genetikoak zaintzeko.

Tomas Lindahl suediarra, Paul Modrich estatubatuarra eta Aziz Sancar turkiarra dira aurtengo sarituak. Haien aurkikuntza zientifikoak itzelak badira ere, niretzat beste zerbait ere bada nabarmengarria. Hots, Aziz Sancar turkiarra maila ekonomiko baxuko familia batean jaio zen, 1946an. Izan ere, haren gurasoak analfabetoak ziren. Estatu Batuetara joan zen, 1977an, eta geroztik, hantxe bizi da. Emaztearekin batera, Aziz and Gwen Sancar Foundation izeneko erakundea sortu zuen, ikasle turkiarrek laguntzeko.

Sancar-en bizitza erabil daiteke klasista eta arrazista argudio makalak deuseztatzeko. Haren aurkikuntza zientifikoak doilor horietatik bat baino gehiago sendatzeko erabili dira dagoeneko, baina, badakizue, doilor asko ezjakin eta ikasgabeak izan ohi dira.

lokaletik
AT

Durangaldeko musika taldeentzako

LEHIAKETA!

1. Taldekideetako bat eta kantaren letra egilea 14-18 urte bitartekoa izan behar da.

2. Lehiaketarako beren beregi sortutako euskarazko kanta bat aurkeztu behar da.

SARIA: MUSIKA TRESNERIA EROSTEKO 500€!

